EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

EAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana

Jarraipena (2016-18)

Hezkuntza Saila

2019ko uztaila

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena

2. Ildo estrategikoak

2.1. Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza
2.2. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari kontu egitea
2.3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan
2.4. Steam estrategia eta ikasmaterialk eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
2.5. Ebaluazioa eta ikerketa
2.6. Ikastetxe publikoen autonomian sakontzea

3. Hobekuntza-planaren aurrerapena

Aurkezten dugun dokumentua 2016-2020 aldirako EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko planaren lehen bi ikasturteak igarota egin den berrikuspenaren emaitza da. Abian den plan bati egindako berrikuspena da; plana eguneratu da, 2020 urtera begira proposatutako adierazleei loturiko lorpenetan eta beharretan oinarrituta.

Sailaren estatistika-zerbitzuak emandako datuak edo erregistroak hartu dira kontuan, hala nola Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearenak, hezkuntza-ikuskaritzarenak eta Euskadiko Eskola Kontseiluarenak. Halaber, kontuan hartu dira estatuko zein atzerriko erreferentziak, aipatu adierazleen jarraipena egiteko. Ildo estrategiko bakoitzaren sarreran, 2016ko erreferentziak gaurkotzen dituzten argitalpenak, ikerlanak eta interes-datuak aipatu dira.

Hasierako L4a aldatzea onetsi da, steam konpetentziei buruzko aipamena eginda; beraz, helburu berriak proposatu behar izan dira. Adierazleren bat ere aldatu da, esangura gutxikoa edo neurtzeko zaila izan zitekeela hauteman denean. Nolanahi ere, hasierako proposamenari eutsi zaio ahalik eta gehienean.

Horrekin guztiarekin, plana are zehatzagoa izatea lortu nahi da, EAEko ikastetxe guztiek erreferentzia beraren arabera har ditzaten erabakiak eta egin dezaten jarraipena, ikasleei arreta hobea ematea eta ikasleon bilakaera hobetzea xede direla.

2.1.- HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN PRESTAKUNTZA (L1)

2.1.1.- SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko planaren 2016ko martxoko bertsioan jasotakoaren arabera, emaitza onenak dituzten hezkuntza-sistemen ezaugarria da prestakuntza sendoko, motibazio handiko eta ikasleen aurrerapenarekin konprometitutako irakasleak izatea. Horren harira, irakasleek eragina dute hezkuntza hobetu nahi duen edozein ekimenetan, aldaketaren eragile nagusiak baitira; izan ere, hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzarekin lotuta dago.

Edgar Morin eta Philippe Perrenoud-en arabera, irakasleei eskatzen zaizkien konpetentziek –hots, irakasle-profilak– hainbat ikuspegi batuko lituzkete.

Horrekin bat etorriz, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen 236/2015 Dekretuaren 30.2 artikuluak honako hau xedatzen du: *«Euskal hezkuntza-sistemako irakasleek konpetentzien profil egokia eduki behar dute, ezin hobeto ekin ahal izateko beren egitekoei:*

a) Ikasleek pentsatzen eta ikasten ikasteko, komunikatzen ikasteko, besteekin bizitzen ikasteko, izaten ikasteko eta egiten nahiz ekiten ikasteko prozedurak irakastea.

b) Gelako ikaskuntza-egoeren proposamenak egitea, aplikatzea eta ebaluatzea, oinarri hauek hartuta: irakaskuntzako edukiak, ikasleen ezaugarriak eta oinarrizko konpetentziak, zeharkakoak zein diziplinazkoak.

c) Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak ikertzea, berriztatzea, garatzea eta ebaluatzea, gogoeta eginez haien eta irakasle-taldeen praktikari buruz eta prestakuntza-sareei buruz.

d) Ikaslearengan ikasteko grina piztea, eta, familiarekin elkarlanean, haren bizitza-proiektuaren eraikuntzan orientazioa ematea.

e) Proposamen didaktikoak ikasle bakoitzaren premietara egokitzea eta doitzea.

f) Beste irakasleekin eta hezkuntza-eragileekin elkarlanean jardutea, eta ikastetxearen kudeaketan eta etengabeko hobekuntzan parte hartzea.

g) Jarduerak gure erkidegoko hizkuntza ofizialetan gauzatzea, eta, hala badagokio, atzerriko hizkuntzaren batean.

h) Informazio eta Komunikazio Teknologiak erabiltzea eta curriculumean txertatzea.

i) Lanbideari buruz, eta eragile berritzaile den aldetik garatutako gizarte-konpromisoari dagokionez, ikuspegi etikoa garatzea.

j) Arazoak eta gatazkak konpontzea.

k) Norberaren prestakuntza jarraitua planifikatzea, norberaren lanari buruzko gogoeta eginez».

Nahitaezkoa da irakasleen prestakuntza-planaren helburua honako hau izatea: irakasleei behar den profil konpetentziala erdiesten laguntzea, ikasleek irteera-profilean ezarritako konpetentziak eskura ditzaten. Etengabeko prestakuntza horrek lehentasuna emango die ikastetxean bertan emandako prestakuntzari eta ikastetxearteko prestakuntzari edo sare-prestakuntzari, ikasle guztien hezkuntza-emaitzetan duen eragina finkatzeko.

Irakasleen prestakuntza-prozesu orokorrak **hasierako prestakuntza** bikaina izan behar du oinarri.

Administrazioak, unibertsitateekin elkarlanean, tutore bidezko praktika-eredua eguneratu eta prestakuntza sustatu behar du, praktikon izaera prestatzaile eta profesionalizatzailea indartzeko, irakasleen profil konpetentzial berriari erantzute aldera.

Diagnostikoa:

Irakasleen **hasierako prestakuntzari** dagokionez, EAEko unibertsitateetan irakasleentzako eskaintzen diren graduak eta masterretako plazei buruzko datuak dira honako hauek.

Haur Hezkuntzako graduan eta Lehen Hezkuntzako graduan eskaintzen diren plazak. 2017/18 ikasturtea

- EHU: 880 plaza, honela banatuta, Haur Hezkuntzako Gradua (360), Lehen Hezkuntzako Gradua (440), Lehen Hezkuntzako Gradu hirueleduna (80)
- Mondragon Unibertsitatea: 375 plaza, honela banatuta, Haur Hezkuntzako Gradua (110) eta Lehen Hezkuntzako Gradua (150)
- Deustuko Unibertsitatea: 375 plaza, honela banatuta, Lehen Hezkuntzako Gradua + Gradu bikoitza (375)
- Begoñako Andra Mari (BAM): Haur Hezkuntzako Gradua (65), Lehen Hezkuntzako Gradua (140) eta Gradu bikoitza (10)

Plaza horiek lortzeko muga-notak igo egin dira azken urteotan; hala, 9'92koa izan zen 2017-2018 ikasturtean (Lehen Hezkuntza Hirueleduneko Gradua-Bizkaia)

Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko gaitzen duen masterrean eskaintzen diren plazak

- EHU: 264
- Mondragon Unibertsitatea: 40
- Deustuko Unibertsitatea: 205

Etorkizuneko irakasleei kalitatezko prestakuntza bermatzeko, *martxoaren 6ko 33/2018 DEKRETUA* argitaratu da, *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen*

duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoa.

Dekretu horren bidez, ikasleek indarreko curriculum-dekretuetan ezartzen den irteera-profila lortzeko beharrezkoa den irakasle-profila bultzatu nahi da. Laster argitaratuko den AGINDUAk garatu eta zehaztuko du.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, frogatuta dago irakasleek konpetentziak hobetzen dituztela ikastetxean esku hartzen dutenean, taldean ikasi eta partekatutako ezagutza sortzen baita. Beraz, ahalmen hau mugiarazi, eta elkarlanaren eta berdinen arteko ikasketaren kultura sustatu behar da.

Irakasleen etengabeko prestakuntzak metodologia aktiboen eta berrikuntzen ezarpena bultzatu behar du ikastetxeetan, kontuan hartuta curriculum-alderdiak, antolamendu-alderdiak, familiekin eta erakunde komunitarioekin elkarlanean aritzeari buruzko alderdiak, ikasgelako jardunbideen eraldaketen} alderdiak etab. Berrikuntza-proiektuek modu zorrotz eta malguan sortu eta garatu behar dute: zorrotzak izan behar dute, egiaztatutako eta oinarritutako ereduen arabera diseinatu behar direlako; eta malguak, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-proiektuaren esparrua kontuan hartu behar dutenez bertako itxaropen eta behar espezifikoak bete behar dituztelako.

Hezkuntza-administrazioak ildo estrategikoekin lotutako prestakuntza-programak abiarazten ditu ikastetxeekin eta ikastetxe-sareekin elkarlanean eta horiekin erantzukizuna partekatuz. Halaber, hausnarketarako eta autoebaluaziorako tresnak ematen ditu, eta, tresna horien jarraipena egiteko, aholkularitza emateko eta ebaluazioa egiteko bitartekoak ditu, bereziki Sailaren laguntza-zerbitzuen, Hezkuntza-ikuskaritzaren eta Unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen bidez, eta, behar izanez gero, unibertsitatearen elkarlanaren edo beste eragile espezifiko batzuen esku-hartzearen bidez ere bai.

Horren harira, abiarazi dituen prestakuntza-estrategien artean **Prestakuntza Ekimen Globala** nabarmendu behar da, Hezkuntza Sailak Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eskolak ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei proposatua, 2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan garatu dezaten.

Ekimen horren helburua gure ikasleen konpetentzien garapen-maila eta, bide batez, emaitzak hobetzea da, bai eta ikastetxe guztietan konpetentzien garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste- eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren eskola-giroa eta baldintzak bermatzea ere. Hori guztia zenbait jarduera-eremu landuz egingo da, erantzuna emateko sistemari buruzko txosten orokorretan (PISA, diagnostiko-ebaluazioak), eskola-emaitzetan, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean eta ikastetxe bakoitzaren testuinguruan hautemandako premiei. Ekimen hori abian jartzeko, garatzeko eta haren jarraipena egiteko, Berritzeguneetako eta Ikuskaritzako langileek modu koordinatuan esku hartuko dute lehentasunezkotzat proposatzen diren eremuetan.

- Konpetentzietan oinarritutako lanerako esparru orokorra
- Komunikaziorako konpetentzia: irakurri ikasteko
- Komunikaziorako konpetentzia: konpetentzia digitala
- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia
- Elkarbizitzarako konpetentzia: «Bizikasi»
- Zientziarako konpetentzia
- Matematikarako konpetentzia

Era berean, abiarazten ari diren prestakuntza-ekintzen barruan, **Bizikasi ekimena** nabarmendu behar da. Ekimenaren helburua da elkarbizitza positiboa bultzatzea eta eskola-jazarpenaren aurka egitea ikuspuntu sistemiko eta integral batetik; gainera, ikasleen arteko elkarbizitza positiboa hobetu nahi du eta gaitasun prosozialen garapena sustatu. Jazarpen-kasu posibleen prebentzioa eta hautemate goiztiarra dira esku-hartze honen oinarria, bai eta kaltetutako harremanak berrezartzea ere.

Hezkuntza-eragile guztiei prestakuntza ematea da hartu behar diren prebentzio-neurri behinenetako bat. Pixkanaka, honako hauek prestatu eta gaitzen ari dira: irakasleak, familiak, irakasle ez diren ikastetxeetako langileak zein laguntza-zerbitzuetako aholkularitzak eta Hezkuntzako Ikuskaritza.

> 2017-2018 ikasturtean, Berritzeguneko 320 aholkularitzari, 80 ikuskatzaileri eta BAT taldeez arduratzen diren 451 ikastetxetako 1.036 irakasleri eman zaie prestakuntza. Prestakuntzaren balioespenean, 10 puntutik 9’2 puntu eman dizkiote batez beste.

Prest_Gara jardueren eskaintzari dagokionez, 2017-18 ikasturteko daturik esanguratsuenak adierazten dira ondoren labur-labur.

- Berrikuntzako eta prestakuntzako proiektuetan parte hartzeagatik ziurtagiria jaso duten irakasleen kopurua: 15.282
- Irakasleak euskararen arloan prestatzeko eskaintzen den plaza kopurua: 755
- Lekuko Berritzeguneek eta Berritzegune Nagusiak antolatutako ikastaro kopurua: 625
- Lekuko Berritzeguneek eta Berritzegune Nagusiak antolatutako ikastaroetan parte hartu duen irakasle kopurua: 17.802

Zuzendaritza-taldeen prestakuntzari dagokionez –eragin handiena duen bigarren barne-faktorea da irakasleen irakaskuntza-ekintzaren atzetik 2017-18 ikasturtean–, Berritzegune Nagusiak, guztira, 14 ikastaro eskaini ditu —240 ordukoak—, eta zuzendaritza-taldeetako 671 kidek parte hartu dute ikastaroetan; gehienak zuzendariak.

2017/2018 ikasturtearen hasieran, hastapeneko oinarrizko prestakuntzako 3 ikastaro eskaini zaizkie –guztira 40 ordukoak– ikastaro horietarako berariaz izendatutako zuzendariei. 106 zuzendarik parte hartu dute ezohiko prestakuntza-deialdi honetan.

Bestalde, prestakuntza juridikoa eskaini zaie Hezkuntzako Ikuskaritzarekin elkarlanean. Ikastaro horietan EAEko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeetako 247 kidek parte hartu dute guztira, hiru prestakuntza-ikastarotan banatuta (10 ordukoa bakoitza).

Azpimarratu behar da 2017-2018 ikasturteko ikastarorik gehienak zuzendarien hautaketa-prozesuaren deialdiari lotuta egon direla. Batetik, 10 orduko ikastaroak antolatu dira zuzendaritza-proiektuak egiten laguntzeko. Ikastaroetan zuzendaritza-taldeetako 227 kidek parte hartu dute. Bestetik, Zuzendarien Hasierako Prestakuntza Programa garatu da. Programa horretarako zuzendariak hautatu dira merezimendu-lehiaketa bidez, 2018-2019 eta 2021-2022 ikasturteen artean EAEko ikastetxe publikoetan zuzendari-lanetan aritzeko, eta 131 zuzendarik parte hartu dute. Programa hori 40 orduko ondoz ondoko hiru ikastarotan garatu da, probintzia bakoitzean bana.

Zuzendaritza-taldeen etengabeko prestakuntzari buruz, Lekuko Berritzeguneetan egiten diren zuzendarientzako mintegiak azpimarratu behar dira. Batzuetan ikasketa-burutzari eta idazkaritza-burutzari ere eskaintzen zaie prestakuntza.

- 2018-2019 ikasturtean, proiektudun zuzendaritzak % 62 dira.

2016ko Hobekuntza Planak **familien prestakuntzaren eta partaidetzaren** garrantzia nabarmentzen zuen eskola-arrakasta ziurtatzeko. Azken ikerketek azpimarratzen dutenaren arabera, indize sozioekonomiko eta kulturalak (ISEK) baino eragin handiagoa izan dezakete emaitzetan familien partaidetzak eta esku-hartzeak.

Familiak ikastetxera erakartzea eta modu koordinatuan lan egitea lagungarria da eskolarekiko konfiantza handitzeko, elkarbizitza hobetzeko, indarrak koordinatzeko... Hezkuntza-komunitate gisa lan egiten bada, eskola leku segurua bihurtzen da, absentismoa gutxitzen da eta ikasleek ikasteko eta ikasketa-emaitzak hobetzeko aukera gehiago izango dute.

Familien prestakuntzari dagokionez, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak urtero egiten duen deialdian Guraso Elkarteek garatutako jardueren artean, Hezkuntza-sistema hobetzeko planeko ildo estrategikoei lotutako prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerei ematen zaie lehentasuna; zehazki, irakurtzeko ohituraren sustapenarekin lotutako prestakuntzari eta euskararen erabilerarekin lotutakoari.

Gainera, Bizikasi ekimenean familientzako prestakuntza diseinatu eta planifikatu da oinarrizko hezkuntzako ikastetxe guztietan.

Hobetzeko arloak

EAEko hezkuntza-sistemaren adierazleen lorpen-maila egiaztatzen duten diagnostikoan eta barneko eta kanpoko ebaluazioetan oinarritzen da Hezkuntza Saila bere ildo estrategikoak ezartzeko. Horrez gain, irakasleen konpetentzia profesionala hobetzeko hainbat ikertzailek egindako nazioarteko ikerketetatik

eskuratutako ondorioak ere kontuan hartzen ditu (UGUSTE, B.; KIHN, P.; MILLER, M.; HATTIE, J.; BARBER, M.; MOURSHED, M.; HARGREAVES, A. ETA FULLAN, M.)

Aurreko guztia eta gure errealitatea aintzat hartuta, **honako hauek dira Plan honetan garatu beharreko helburu izango diren hobekuntza-arloak**:

- Etorkizuneko irakasleei eskatuko zaizkien konpetentzien zehaztasuna hobetzea, irakasleen profil konpetentziala kontuan hartuta.

- Lehentasuna ematea irakasleen prestakuntza sustatzen jarraitzeari –bai ikastetxean bertan egiten den prestakuntza eta ikastetxeen artekoa–, eta, horrekin batera, irakasle-jarduna hobetzeko finkatuta dauden hezkuntza-sareetan parte hartzera bultzatzea.

- Hezkuntzako jardunbide eta esperientzia arrakastatsuak pertsona gehiagorengana helaraztea, hezkuntza-komunitate osoak ikas baitezake zerbait.

- Ikasleen irteera-profila eta irakasleen profil konpetentziala kontuan hartzea irakasle eta zuzendaritza-taldeentzako prestakuntza-jarduerak antolatu eta diseinatzerako orduan, ikasketek ikasgeletan eta ikastetxeetan eragina izan dezaten lortzeko.

- Zuzendaritza-taldeen prestakuntza bermatzea beren ebaluazioko esparruan ezarri diren alderdietan, eta egonkortasuna sustatzea eta prestakuntza areagotzea ikastetxeen eta pertsona-taldeen buruzagitzarekin, kudeaketarekin eta antolaketarekin lotutako gaietan.

- Zuzendaritza-proiektuak dituzten zuzendarien kopurua areagotzea.

  - Familiei eta gainerako hezkuntza-komunitateari parte hartzeko, elkarlanean aritzeko eta prestakuntzarako aukera gehiago eskaintzea.

HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L1.1.- Hasierako prestakuntza irakasleei beharrezkoa den profil konpetentziala erdiestera bideratzea, ikasleek irteera-profilean ezarritako konpetentziak eskuratu ditzaten.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18 IKASTURTEAK	**2019-20**
• Lantalde bat eratu da Hezkuntza Sailburuordetzaren eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren artean, ikastetxeetan practicuma garatzeko lehentasunezko alderdiak aztertu eta adosteko. Martxoaren 6ko 33/2018 DEKRETUA irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari buruzkoa argitaratuta, Hezkuntza Sailak kalitate handiko hasierako prestakuntza zorrotza eskaini nahi izan die etorkizuneko irakasleei, EAEko hezkuntza-sistemaren funtzionamendu ona eta kalitatea bermatzeko. Era berean, jardunbide egokiak dituzten hezkuntza-zentroen parte-hartzea eta hezkuntza-berrikuntza eta -esperimentazioarekin konprometitutako irakasle eskarmentudunen lankidetza bultzatu nahi ditu. Horrez gain, egiteko horri merezi duen aintzatespena eman nahi dio. Practicumari buruzko Dekretua garatzeko koordinazioa sustatu da honako hauen artean: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Ikuskaritza Nagusia, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza eta EAEko unibertsitate-ordezkariak.	L1.1.1 Egin den materiala practicumeko ikasleak hartzen dituzten ikastetxeen % 90ek erabiltzen du. L1.1.2 Hezkuntza Sailak EAEko hainbat unibertsitateri aurkeztu die Practicumeko ikasleentzako egindako materiala. L1.1.3 Ikastetxeetako zuzendaritzen lekuko mintegietan, 18 Berritzeguneetako zuzendaritzek Practicumari buruzko dekretua eta practicumeko ikasleentzako materiala landu dituzte. L1.1.4 Ikastetxeen % 75ek Practicumeko ikasleentzako plazak eskaintzen ditu. L1.1:5 Praktiken jarraipena egiteko batzordea ezarri da eta Dekretuan aurreikusten den moduan funtzionatu du. L1.1.6 Practicumari buruzko Dekretutik eratorritako Agindua egin da, antolaketari eta plangintzari buruzko alderdiak zehaztu eta garatzeko.

L1.2 Irakasleek beharrezkoa duten profil konpetentziala eguneratu eta egiaztatzera bideratzea etengabeko prestakuntza, ikasleek irteera-profilean ezarritako konpetentziak eskuratzea ahalbidetzeko, Prest Gara Planaren bidez; konpetentzia horiek Oinarrizko Hezkuntzari buruzko Dekretuan ezartzen dira.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18 IKASTURTEAK	**2019-20**
Prestakuntza Ekimen Global bat proposatu die Hezkuntza Sailak Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eskolak ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei, 2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan garatu dezaten. Eskola-jazarpenari aurre egin eta bizikidetza positiboa sustatzeko **Bizikasi** ekimenaren barruan, hainbat prestakuntza-ekintza abiarazi dira hezkuntza-arloko eragile guztientzat. **Irakurketa Plana** hezkuntza-komunitatearen eskura jarri den laguntza- eta babes-baliabidea da. Ekimen horren helburua da, hain zuzen, gure ikasleen irakurmena hobetzea eta irakurzaletasuna bultzatzea. Webgune bat egin da (Irakurgunea) ekimenaren euskarri gisa, eta Eleaniztasunerantz deialdian neurriak txertatu dira Irakurketa Planaren proposamenak ikastetxe guztietara zabaltzeko. Hezkuntza Sailak **STEAM ekimena** sustatu du irakasleen eta ikastetxeen artean. Besteak beste, nabarmentzekoa da STEAM arloetako (Science, Technology, Engineering, Art & Maths) berrikuntza-proiektuak sortu eta garatzeko deialdia. Horren harira, Prestakuntza Ekimen Globalak ere bere egin du STEAM planteamendua, eta prestakuntza-edukietan txertatu du. **PREST_GARA Irakasleen Prestakuntza Planaren** aplikazioa aldatu egin da, ikastaroak irakasleen profil konpetentziala eta ikasleen irteera-profila lortzeko diseinatuta eta garatuta daudela ziurtatzeko. Prest Gara planak eta Berritzeguneek eskaintzen dituzten prestakuntza-ekintza guztiak bildu eta horiek sustatzeko, irakasleen prestakuntzarako	L1.2.1 Ikastetxe publikoen % 95ean irakasleek prestakuntza jaso dute ikasleen profil konpetentziala garatzeko metodologien arloan, Prestakuntza Ekimen Globalaren bidez. L1.2.3 Irakurketa Planaren proposamenak eta Irakurgunea plataformako edukien hedapena % 90ekoa izatera iritsi da ikastetxeetan, laguntza-zerbitzuen aholkularitzari esker. L1.2.3 Ikastetxeen % 75ek Hezkuntza Sailburuordetzak sustatutako berrikuntza-deialdiren batean parte hartzen du. L1.2.4 Bizikasi ekimeneko BAT taldeen % 100ek eta ikastetxe publikoetako zuzendaritzen % 95ek jaso dute prestakuntza. L1.2.5 Haur-hezkuntzako ikastetxeekin batera burututako Haur Hezkuntzako berariazko egitasmo esperimentala esperientziaren pilotajea % 50 handitu da 2018-19 ikasturtean. L1.2.6 Steam estrategiarekin eta emakumeentzako bokazio zientifikoekin lotura duten orientatzaileentzako prestakuntza-ildoa txertatu da, soldata-arrakalari lotutako egoera ere azpimarratuta. L.1.2.8 Hezkuntza Ikuskaritzak praktiketan dauden irakasle funtzionarioen % 95 ebaluatu ditu, ezarritako irakasleen profil konpetentzialaren arabera. L1.2.9 Irakasleen prestakuntzarako plataforma birtuala abiarazi da, Prest_Gara eta Berritzeguneetako eskaintza guztia (aurrez aurreko eskaintza eta on line eskaintza) barnean hartuta.

plataforma birtuala sortu da, egunero eguneratzen den prestakuntza-eskaintza guztia biltze aldera. **Haur Hezkuntzarako** ikasmaterial espezifikoak egin dira irakasleentzat, eta etapa horretako gai nagusiei buruzko jardunaldiak antolatu dira. Irakasleentzako Gida egin da, praktiketan dauden irakasleei begira. Ikastetxearen urteko planean, barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzei lotutako hobekuntza-ekintzez gain, irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza-plana ere sartu da, baita Hobekuntza Planean eta Prestakuntza Ekimen Globalaren plangintzan zehaztutako helburuak ere.	L1.2.10 Ikastetxeen % 90ek irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza-plana ikastetxearen urteko planean txertatzea sistematizatu du, Hobekuntza Planean zehaztutako helburuak ere barnean hartuta.

L1.3 Hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza eskaini dira, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak ikastetxeen etengabeko hobekuntzaren buru izan daitezen.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18	**2019-20**
2017/2018 ikasturtean hasierako prestakuntza eskaini zaie beren-beregi ikastaro horretarako izendatutako zuzendariei; ikastaroak 40 orduko iraupena izan du. 106 zuzendarik parte hartu dute prestakuntza-deialdi honetan. Partekatuz Ikasi modalitateak zuzendaritza-eginkizunekin lotutako 6 jardunbide egoki eskaini ditu. Era berean, prestakuntza-ikastaro bat antolatu da EHUko udako ikastaroen barruan.	L1.3.1 Zuzendaritza-eginkizunetarako hautagaien % 90ek bere profil konpetentzialari dagokion hasierako prestakuntzan parte hartu, eta akreditazioa jaso du. L1.3.2 Sailak prestakuntza eskaini die zuzendaritza-proiekturik gabeko zuzendaritzei. L1.3.3 Ikastetxeetako zuzendaritzen % 75ek zonakako zuzendaritza-mintegietan parte hartu du. L1.3.4 Partekatuz Ikasi modalitatearen esparruan, % 20 gehitu da zuzendaritza-taldeei beren eginkizunak garatzen laguntzeko tutorizazio kopurua.

L1.4 Esperientzian eta jardunbide egokietan oinarritzen den berdinen arteko prestakuntza sustatzea, ikasgelan irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak ikertu eta horiek hobetzeko helburuarekin.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18	**2019-20**
Antolatu diren prestakuntza-jardunaldietan ikastetxeetako esperientziak eta jardunbide egokiak ezagutarazi dira. «Partekatuz Ikasi» modalitatean, praktika berriak gehitu zaizkio eskaintzari: Haur Hezkuntza eta zuzendari berrien tutorizazioa. Argitaratu den Practicumari buruzko Dekretuak garapen profesional ona eta irakaskuntza-jardun egokia duten ikastetxeek praktikaldian dauden ikasleak har ditzaten sustatzen du. Ikastetxe-sareetako lana sustatu da, ikastetxeen kudeaketa aurreratuari, metodologia aktibo eta parte hartzekoen ezarpenari eta ikastetxeetan hezkuntza-komunitatearen parte-hartzeari lotutako lehentasunak kontuan hartuz.	L1.4.1 Ikastetxeen % 50ek bere borondatez eskatu du praktiketako prestakuntza-zentroa izateko aitorpena. L1.4.2 Antolatutako jardunaldien % 90ek jardunbide egokien hedapena barne hartzen du, kasuan kasuko aholkuetan zehaztutakoaren arabera. L1.4.3 Hezkuntza Sailak jardunbide egokiei buruzko datu-bankua du, honako hauen jardunbide egokietatik sortua: Partekatuz Ikasi proiektua, Kalitatea Hezkuntzan sareak, ikaskuntza-komunitateak eta Amaraberri eta Irakurketa Planarekin eta STEAM estrategiarekin lotutako beste batzuk.

L1.5 Familien eta irakasleak ez diren langileen partaidetza sustatzea hausnarketa-prozesuetan eta prestakuntza-jardueretan, irakasleekin batera elkarlanean aritu daitezen, ikasleen irteera-profila lortzeko eta ekarpenak egin ditzaten ikastetxea hobetzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18	**2019-20**
Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntza-deialdiek hezkuntza-sistemaren hobekuntza-planeko ildo estrategikoei lotutako prestakuntza sustatzen dute; zehazki, irakurtzeko ohitura sustatzearekin eta euskararen erabilerarekin zerikusia duen prestakuntza.	L1.5.1 Familien elkarteen federazioentzako deialdiekin lotutako prestakuntza-jarduerak aztertu dira, haien proposamenak Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoetara egokitzeko. L1.5.2 Ikastetxeen % 80k prestakuntza eskaini die familiei, Bizikasi ekimenaren esparruan. L1:5.3 Berritzeguneek antolatu dituzten prestakuntza-jardunaldien % 80k familien partaidetza sustatu du. L1.5.4 Hezkuntza Sailburuordetzak baterako hezkuntza, aniztasunarekiko hezkuntza-arreta eta goi-mailako ahalmenak lantzeko antolatu dituen prestakuntza-jardunaldien % 80tan familien partaidetza sustatu da.

2.2.-HEZKUNTZA INKLUSIBOA GARATZEA ETA ANIZTASUNARI KONTU EGITEA (L2)

2.2.1.- SARRERA

Hezkuntza inklusiboaren helburua da ikasle guztiek eskola-arloan arrakasta izatea eta, ondorioz, beren gaitasun pertsonalak erabat gara ditzaten lortzea, irteerako profilean aurreikusitako oinarrizko konpetentziak lortze aldera.

Esparru horretan, lehentasuna dute kolektibo zaurgarrienek (desparekotasuna edo diskriminazioa jasaten dutenak) eta, beraz, haietan jarri behar da arretarik handiena.

Lehentasun hori emateko, haur guztiei ikuspegi inklusibotik modu pertsonalizatuan erantzun behar zaie; horretarako, beharrezkoa da ikasle guztientzako balio duten estrategiak sustatzea eta haien garapen pertsonal eta akademikoa mugatu dezaketen oztopoak ezabatzea. Erabat aldatu behar dira hezkuntzaren egitura, funtzionamendua eta proposamen pedagogikoak. Kontua da guztiek arrakasta izatea ikaskuntzan eta aukera-berdintasunean parte hartzea. Bestela esanda, oztopoak ezabatzeak esan nahi du eskola-testuingurua aldatu behar dela, ikasleek zailtasunik izan ez dezaten beren eskola-ingurunean moldatzeko eta hazteko. Praktikan, hezkuntza-erantzunaren ardatza eskola-testuinguru arruntera lekualdatu behar da. Azken finean, inklusioa irismenarekin eta parte-hartzearekin dago lotuta, eta hezkuntza inklusiboa da barne hartzen duena ikasleen desberdintasunarekiko errespetua eta onarpena, eta malgutasunez antolatzen dena aniztasunari erantzuteko eta guztientzako arrakasta-ikaskuntzak sustatzeko.

2018an Eusko Legebiltzarreko hezkuntza-batzordeak onartutako «Hezkuntzaren aldeko akordioa: akordiorako oinarriak» dokumentuan bildutako bost esparruetako bat bizikidetzari buruzkoa da, eta horren helburu nagusia bizikidetzarako eta ekitaterako esparru erkidea zehaztea da, zeinak aniztasunaren balioa indartu eta diskriminaziorik gabeko eskolatzea bermatuko duen, eta, erantzunkidetasunetik, hezkuntzako erantzunak eta jardunbideak ikasle bakoitzaren ikasteko gaitasunetara egokituko dituen.

Diagnostikoa

Gaur egun, Dekretu berri bat prestatzen ari dira eskola inklusiboaren esparruan, eta bat etorriko da *hezkuntza eredu pedagogikoaren esparruarekin* eta curriculumari dagokionez indarrean dauden dekretuekin. Aldi berean, 2018-2022 aldirako eskola inklusiboa garatzeko II. Plana argitaratuko da.

Plan horren abiapuntua EAEko hezkuntza-sistemak orain arte egindako bidearen eta horretan ikasitakoaren aitorpena da. Halaber, jarraian aipatuko ditugun indarguneak eta hobetu beharreko arloak zehazten dira. Gainera, neurri asko eta askotarikoak hartu dira hezkuntza inklusiboa sustatzeko eta aniztasunari eta bizikidetza positiboari erantzun egokia emateko. Neurriok askotariko plan, programa eta protokoloen bidez proposatu eta gauzatzen dira, zenbait esparrutan:

- ikasle etorkinei hezkuntza-arreta ematea.
- hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa
- ikasle ijitoak eskolatzea.
- adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleei zuzendutako jarduerak
- arreta goiztiarra
- ikasleen eskubideak eta betebeharrak
- eskola barruko jazarpenaren eta ciberbullying delakoaren aurreko jarduketa
- ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntza ematea
- Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza Programa Osagarria (2017-2020)
- Hainbat programa: Hamaika Esku, Bidelaguna, Hezkuntzan Berariaz Sendotzeko Programa, Eskolatze Osagarriko Programak, Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak
- ikasle gorrei emandako hezkuntza-erantzuna: ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean
- ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa
- adoptatutako ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko hezkuntza-erantzuna
- aldundi eta udalekin lankidetzan aritzeko programak, eskolagabetzea eta eskola-absentismoa erauztearen esparruan, hezkuntzarako eskubidea bermatze aldera.

EAEko hezkuntza-sistemaren indargune hauek nabarmendu behar dira:

- Eskola-uzte goiztiarraren ehunekoa Europako Batzordeak 2020rako ezarritako % 10ekoa baino txikiagoa da[1].

- Hezkuntza Sailak hezkuntza inklusiboaren ereduarekiko duen konpromisoa.

- *Gela egonkorretan* edo hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatutako ikasleen ehuneko oso txikia[2].

- Eskolatze orokortua eta doakoa 2 urtetik aurrera[3].

- Hobekuntza Hezkuntza Laguntzako Berariazko Premiak hautematean eta erantzun goiztiarra ematean, Arreta Goiztiarrerako Esparru Planaren bidez: Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa.

- Ekitatea ikasle bakoitzaren hezkuntza-premiei erantzutean, neurri pertsonalizatuen bidez, haien gaitasunak ahalik eta gehien hobetzea bermatzeko.

- Ikuspegi inklusiboa duten sareak, proiektuak eta programak bultzatzea, aniztasunari erantzuteko (ikaskuntza-komunitateak, Amaraberri, Bidelaguna, Hamaika esku etab.)

[1] EAEn % 7, Europar Batasunean (EB-28), berriz, % 10,6. 2017ko datuak.
[2] Gela egonkorretan eta hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatutako hezkuntza-premia bereziko ikasleen ehunekoa % 7,2 da (berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasle guztiekiko). Azken horietatik, % 35,5 soilik daude hezkuntza bereziko ikastetxeetan eskolatuta (Hezkuntza Saileko Estatistika Atala. 2016-2017 ikasturteari dagozkion datuak).
[3] 2015-2016 ikasturteko eskolatze-tasa Haur Hezkuntzan: 2, 3 eta 4-5 urte dituzten haurren kasuan, % 93,8, % 99,2 eta % 100, hurrenez hurren. EUSTAT.

- Ikastetxeen urteko planak, ikasleen gaitasunak hobetzeko jarduketa zehatzekin.

- Aniztasunari erantzuteko laguntza-egiturak (Berritzeguneak, Ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusiorako baliabide-zentroak, Ospitaleetako eta Etxez Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Hezkuntza Arreta Terapeutikorako Zentroak, etab.) eta profesional espezializatuak egotea (irakasle aholkulari eta orientatzaileak, pedagogia terapeutikoko irakasleak, fisioterapeutak, entzumen eta hizkuntzako irakasleak, zeinu-hizkuntzako interpreteak, hizkuntza-errefortzuko irakasleak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, etab.); horri esker, laguntza antolatzen da eta ikasleekin modu malguagoan esku hartu daiteke.

- Sareko lana garatzea gizartearen eta hezkuntzaren, osasunaren eta hezkuntzaren, eta gizartearen, osasunaren eta hezkuntzaren alorretan (gaixotasun kroniko konplexuak dituzten haurren eta beharrizan bereziak dituzten beste haur batzuen arreta integraturako Proiektua; Hezkuntza eta Osasun Mentalaren arteko lankidetzarako Esparru Orokorra; Arreta Goiztiarreko Eredua garatzea, etab.).

Hobetu beharreko arloak:

- Hezkuntza inklusiboaren esparruan aniztasunari ematen zaion erantzunari buruzko indarreko araudia egokitzeko beharra.

- Lurraldearteko irizpideak eta prozedurak sustatzea ikasleen eskolatzeari buruzko erabakiak hartzean.

- Hezkuntza-etapa guztietan, oinarrizko konpetentziak garatzeko metodologia aktiboen eta ebidentzian oinarritutakoen erabilera orokortzea, zeinak ikasteko eta harremanak izateko modu desberdinetara egokituta egongo diren.

- Konpetentzietan oinarritutako gero eta prozesu gehiago ezartzea, aukera eman dezaten askotariko estrategiak eta tresnak erabiltzeko, eta ikasle guztien banakako jarraipena egitea, lorpenak hobetzea eta bikaintasun-maila igotzea errazteko.

- Ikastetxeetan koordinazio-egiturak garatzea, zeinak irakasle guztien talde-lana, inplikazioa eta parte-hartzea bermatuko duten, ikasleen aniztasunari ikuspegi integral eta inklusibotik erantzuteko.

- Tutoretzako Ekintza Planak modu orokortu eta eraginkorrean ezartzea eta banakako tutoretza sustatzea.

- Hezkuntza-komunitateak ikasle guztien arrakastan duen rola onartzea eta osasun- eta gizarte-sistemarekiko harremana aktiboki sustatzea, ikasleen ongizatea lortzeko.
- Familiek ikastetxearen egunerokotasunean partaidetza sistematikoa izan dezaten bultzatzea, berariazko koordinazioa garatzeko komunikazio-bide arinak ezarriz.
- Ikasle guztien igarotze-prozesuak hobetzea: etxetik eskolara igarotzea, Haur Hezkuntzako etapatik Lehen Hezkuntzara, eta hortik Bigarren Hezkuntzara, bai eta ikastetxe-aldaketa guztietan ere.

- Ikasle guztiekin aurreikuspen handiak garatzea, curriculuma aberasteko programak sustatuta, ikasle guztien ikaskuntzak hobetzen dituzten estrategiak diren aldetik.

- Gaitasun handiko ikasleen identifikazio- eta erantzute-prozesua hobetzea.

- Errepikatze-tasa minimizatzea

- Hautemateko eta hezkuntza-erantzuna emateko prozesuen arreta eta jarraitutasuna bermatzea Haur Hezkuntzan eta derrigorrezko oinarrizko hezkuntzan zehar.

2.2.-HEZKUNTZA INKLUSIBOA GARATZEA ETA ANIZTASUNARI KONTU EGITEA (L2)

HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L2.1.- Jatorria, etnia, generoa, kultura, sexu-joera edo genero-identitatea oinarri duen diskriminaziorik gabeko eskolatzea bermatzea ikasleak onartzean eta dibertsitate funtzionalaren edo beste edozein dibertsitateren harrera, iragatea eta arreta hobetzea, integrazio eta kohesio sozial handiagoa lortzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana prestatzen ari dira eta hiru hilean behin egiten da ekintza-ildoen jarraipena eta ebaluazioa. Txosten bat aurkeztu da ikasle etorkinek hiru lurraldeetan duten eskolatzeari buruz, eta aipatutako II. Planean jasotako neurrien osagarriak diren jarduerak jaso dira bertan. 2018-2019 ikasturteko matrikulazioa 2018ko urtarrilean onarpenari buruz argitaratutako dekretu berriaren arabera gauzatu da.	L2.1.1 Ezarritako batzordeetan, Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin da. L2.1.2 Martxan jarri dira ikasle etorkinen eskolatzeari buruz egindako ikerlanean aurreikusitako neurri berriak.
Materialak eta orientabideak eman zaizkie ikastetxeei, berariazko programak presta ditzaten absentismoko, eskola-uzte goiztiarreko, eskola-porroteko eta errepikatzeko arazoak dituzten ikasleei banakako arreta emateko.	L2.1.3 Egokitasun-tasak hobetu dira (ez errepikatzea).
Ikasturtean eskolatutako ikasleen datuen erregistroak hobetu dira, eskolatze-batzordeek esleitutako ikastetxeetako iraunkortasun-tasen jarraipena egiteko.	L2.1.4 Hezkuntzako Ikuskaritzak esku hartu du eskolatze-batzordeak esleitutako ikasleen iraunkortasunaren ehunekoa % 75era heldu ez den ikastetxeetan.
Larrialdiko proposamenak egin dira bakarrik dauden adingabe atzerritarrak eskolatzerako, eta berariazko ekimenak jarri dira martxan Helduen Hezkuntzan, sare publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eskolatu berri diren ikasleen gurasoekin.	L2.1.5 Galdetegi bat prestatu da jakiteko zer gogobetetasun-maila duten familiek, haien seme-alabak eskolatzeko proposamenari dagokionez.

L2.2 Absentismoari, eskola-uzte goiztiarrari, eskola-porrotari, aniztasunarekiko arretari edo edozein bazterkeria motari buruz prebenitzea eta ahalik eta lasterren jardutea, baliabideak eraginkortasunez erabiliz, ikasle guztien onura lortzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Bizikasi ekimenaren talde sustatzaileak honako hauei eman die prestakuntza: - 1.036 irakasleri, tresnak izan ditzaten, pertsonen arteko harremanak diagnostikatzeko eta ondoez sozioemozionala, bazterkeria eta eskola barruko jazarpeneko egoerak behatzeko eta hautemateko. - Berritzeguneetako aholkularitza guztiei eta hezkuntzako ikuskaritzari. - tutoretzako materialak diseinatu ditu, ekimenaren esparruan. Bizikasi taldeak prestakuntza ematen jarraitzen du, zuzendaritza berriei, BAT taldeei, Berritzeguneetako aholkularitzei eta ikuskaritzari. Hezkuntzako Ikuskaritzak eta Berritzeguneetako aholkularitzek koordinatuta jarduten dute, ekimen honekin lotutako esku-hartzean. Profil sozioekonomiko baxuagoa izanik, gizarteko edo hezkuntzako bazterkeria izateko arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei baliabideak eman zaizkie, jatorriko gabeziak orekatzeko eta curriculumean ezarritako gaitasunen garapen-mailak lortzeko. Hamaika Esku programaren bigarren fasea abiarazi da. 10 ikastetxe berri batu dira.	L2.2.1 Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 90ek BAT taldeek ekimena ezarri du beren ikastetxeetan. L2.2.2 Sare publikoko ikastetxeen % 95ek Bizikasi ekimenerako diseinatutako materialak erabiltzen ditu tutoretza-saioetan. L2.2.3 BAT taldeen eta ikastetxeetako zuzendaritzen prestakuntza Bizikasi ekimenean ezarritakoaren arabera egin da. L2.2.4 Bizikasigunea diseinatu da, eskola-komunitateak erabiltzeko. L2.2.5 Hamaika Esku programan parte hartu duten ikastetxeen % 80an, ikasleen emaitza akademikoak hobetu dira. L2.2.6 Hamaika Esku programan parte hartu duten ikastetxeen % 70ean, ikastetxearen balio erantsia hazi dela egiaztatu da, diagnosi-ebaluazioaren txostenaren arabera.
Hezkidetzako I. Planaren jarraipena egin da. EAEko hezkuntza-sisteman, berdintasunean eta genero-indarkeriaren prebentzioan heztea, aurreikusitako batzordeetan, eta Jarraipen eta Garapen Batzordeari jakinaraztea, hiruhileko txosten bidez, premiei eta itxaropenari buruzko informazioa, bai eta Planak jarduera-esparruan egindako jarduketen jarraipenari buruzkoa ere.	L2.2.7 Ezarritako batzordeetan, II. Hezkidetza Planaren («Berdintasunean eta genero-indarkeriaren prebentzioan heztea euskal hezkuntza-sisteman») jarraipena eta ebaluazioa egin da. L2.2.8 Ekintza-plana ikastetxeen % 90ean hedatu da, Berritzeguneek antolatutako

II. Hezkidetza Planaren («Berdintasunean eta genero-indarkeriaren prebentzioan heztea euskal hezkuntza-sisteman») zirriborroa prestatu da. Hala 2016-2017 nola 2017-2018 ikasturteetan, deialdiak egin dira hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plana diseinatzeko. Irakasleek «Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko» protokoloa daukate.	mintegien bitartez. L2.2.9 Hezkuntzako Ikuskaritzak «Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko» protokoloa aplikatzen duten kasuen jarraipena egin du.
Bikaintasunerantz deialdiaren bidez: - **Partekatuz Ikasi** modalitatean, jardunbide egoki inklusiboak hautematea sustatzen jarraitu da. - **Curriculuma Aberastea** modalitatean, urtero, proiektua eskaintzen zaie 10 ikastetxeri.	L2.2.10 Partekatuz Ikasi modalitatean, jardunbide egoki inklusiboen eta jarduera arrakastatsuen kopurua % 10 handitu da ikastetxeetan. L2.2.11 Gaitasun handiko ikasleen arretarako plana aurreikusitako kronogramaren eta helburuen arabera ari da garatzen.
Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa EAEko ikastetxe publikoetan aplikatzen da.	L2.2.12 Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren inpaktuaren ebaluazioa egin da, Arreta Goiztiarrerako Esparru Planean aurretik ezarritako adierazleen bidez. L2.2.13 Haur Hezkuntzan, garapeneko zailtasunak edo zailtasunak izateko arriskua duten ikasleen hautemate-maila handitu da.
Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren inpaktuaren ebaluazioa egin da, Arreta Goiztiarrerako Esparru Planean aurretik ezarritako adierazleen bidez. Haur Hezkuntzan, garapeneko zailtasunak edo zailtasunak izateko arriskua duten ikasleen hautemate-maila handitu da.	L2.2.14 Berariazko baliabideak emateari buruzko irizpideak ezarri dira, matrikula-eskabidea epez kanpo egiten den kasuetarako. L2.2.15 Berariazko baliabideak emateari buruzko irizpideak ezarri dira, balorazio psikopedagogikoan oinarrituta. L2.2.16 «Hezkuntza-premia berezien kodetzea. Kontsultarako eskuliburua, HPBetako Aholkulariek soilik erabiltzeko» dokumentua berrikusi da.

Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleen autonomia eta irisgarritasuna garatzeko laguntzaren premia zehazteko Protokoloa eguneratu da eta zehaztu da bete egin behar dela jangelan eta garraioan, lan-plan bat diseinatzeko eta autonomia gartzeko helburuak zehazteko, hurrengo ikasturtean. Aurrera egin da osasun mentaleko arazoak dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleekin egindako berariazko prozesu batean; dokumentu honetan dago jasota: «Osasun mentalari eta hezkuntzari buruzko dokumentu adostua».	L2.2.17 «Autonomia garatzeko programa pertsonalizatuak» orokortu dira. L2.2.18 Osasun mentaleko arazoak dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleentzat ezarritako prozesua garatu eta berrikusi da.
Irakasleei laguntzeko dokumentuak prestatu dira, curriculumerako irisgarritasuna hobetzeko entzuteko desgaitasuna, ikusteko desgaitasuna eta gaztaroko artritis idiopatikoa duten ikasleentzat, baita adoptatuentzat ere.	L2.2.19 Irakasleei laguntzeko dokumentuak prestatu dira: - irisgarritasun kognitibo eta sozialeko gidak. - entzumen-desgaitasuna.
Dekretu berriaren prestaketa martxan da: «Hezkuntza inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko DEKRETUA, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat».	L2.2.20 Dekretua argitaratu da: «Hezkuntza inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko DEKRETUA, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat».
Hezkuntza inklusiboa garatzeko II. Planaren prestaketa martxan da.	L2.2.21 Ezarritako lan-batzordeek Hezkuntza inklusiboa garatzeko II. Planaren jarraipena, koordinazioa eta ebaluazioa egin dute. L2.2.22 Hezkuntza inklusiboa garatzeko II. Plana hedatu da ikastetxe publikoen % 90ean, Berritzeguneek antolatutako mintegien bitartez.
Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleei zuzendutako II. jarduera-planaren garapena martxan da.	L2.2.23 Lehen Hezkuntzako 2. mailan, gaitasun handiko ikasleen identifikazioa sistematizatu da. L2.2.24 Irakasleei prestakuntza eman zaie, gaitasun handiko ikasleak identifikatzeko eta hezkuntza-arloan esku hartzeko.
Berariazko prestakuntza eman eta antolatu da, Hezkuntza Sistemako profesional espezifikoentzat: HPBetako aholkularitza	L2.2.25 Heziketa bereziko profesional espezifikoentzako jarraibide eta orientabideetan proposatutako koordinazio-

eskualdeko Berritzeguneetan, entzuteko eta ikusteko desgaitasunak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko profesional espezifikoak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, zeinu-hizkuntzako interpreteak. Lurraldearteko irizpideak erabilita, hezkuntza-sistemako profesional espezifikoak koordinatu dira: Gorren koordinatzaileak, IBT-CRI zerbitzuko profesionalak, terapeuta okupazionalak.	eta prestakuntza-proposamenak gauzatu dira, erkidego osoan modu koordinatuan jarduteko.

L2.3 .- Gero eta komunitate inklusiboagoak lortzea, inklusioko eta partaidetzako prozesuak indartuz, hala familiei, irakasleei eta ikasleei nola hezkuntzako, gizarteko eta osasun-arloko eragileei dagokienez; halaber, ikastetxeen eta sareen arteko komunikazioa eta trukea sustatzea, ikasle guztiek ahalik eta gehien gara ditzaten beren gaitasunak.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017- 2018	**2019-2020**
«Osasun mentalari eta hezkuntzari buruzko dokumentu adostua» argitaratu da.	L2.3.1 «Osasun mentalari eta hezkuntzari buruzko dokumentu adostua» dokumentuaren erabilera hedatu da hezkuntza-arloan eta osasun-arloan zabaltzen lagundu da.
Lan-batzorde bat ezarri da Ospitaleetako eta Etxez Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Hezkuntza Arreta Terapeutikorako Zentroak ebaluatu eta eguneratzeko.	L2.3.2 Proiektu eta jarduera-eredu berriak daude Ospitaleetako eta Etxez Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Hezkuntza Arreta Terapeutikorako Zentroetan.
Hezkuntza Saialak GaituzSport proiektua sustatu du, desgaitasunak dituzten ikasleek aktiboki parte har dezaten kirol-jardueretan, eskola inklusiboaren esparruan.	L2.3.3 % 30 igo da GaituzSport proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen partaidetza.
Bilerak egin dira familia-elkarteekin, informazioa trukatu eta, hala, proposamen teknikoak egiteko, hezkuntzako laguntza premia bereziei hezkuntza-erantzun hobea emate aldera. Familien elkarlanerako eta partaidetzarako gida baten prestaketa martxan jarri da.	L2.3.4 Gida gauzatu eta hezkuntza-komunitatean zabaldu da.
Beharrizan bereziak dituzten haurren arreta integraturako proiektuaren lehen fasean familietan eta profesionaletan hautemandako beharrei erantzunez, berariazko prozesuak berrikusi dira, osasunaren, gizarte-zerbitzuen eta hezkuntzaren arloko prozedurak eguneratzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta azpiprozesu bakoitzeko dokumentuak amaitu dira (entzuteko desgaitasuna, Down-en sindromea, autismoa, gaixotasun arraroak).	L2.3.5 Hezkuntza.net webgunean, azpiprozesuen dokumentu adostuak argitaratu dira: entzuteko desgaitasuna, Down-en sindromea, autismoa, gaixotasun arraroak.

Batzorde bat osatu da, arreta integratuko protokoloak diseinatzeko hezkuntza-etapen, eskolatze-modalitateen edo beste hezkuntza-, gizarte- edo osasun-sistema batzuen arteko trantsizioetarako.	L2.3.6 Trantsizioetarako arreta integratuko protokoloak diseinatu eta ezarri dira.

2.3.- ELEBITASUNA HEZKUNTZA ELEANIZTUNAREN BAITAN (L3)

2.3.1.- SARRERA

2016-2020 Gobernu Programaren konpromisoetako bat «eskolan eleaniztasuna bultzatzea» da. Konpromiso hori betetzeko, ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateei eragiten dieten erabakiak hartu behar dira. Hezkuntza-politikak proposatzen duen esparru eleaniztunean, euskara ardatz izango da.

Ikastetxe bakoitzaren errealitate soziolinguistikoak eragin nabarmena du euskararen ikaskuntzan eta erabileran eta, beraz, errealitate hori kontuan hartu behar da hizkuntza-proiektuak diseinatzeko. Proiektuotan, ikastetxe bakoitzeko hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza gidatuko dituzten oinarrizko erabakiak bilduko dira.

Irakasleek behar bezalako prestakuntza didaktikoa izan behar dute, dauden hizkuntzen arteko harremana modu integratu eta integralean azaltzeko, ikasleek errazago eskuratu ditzaten. Ildo horretan, eta, hasteko, euskarako hizkuntza-konpetentziak lortzetik abiatuta, gaztelaniari eta ingelesari dagozkienak garatzeko kontuan hartu behar dira hezkuntza-etapa bakoitzean ikasleen irteera-profila lortzeko proposatutako helburuak.

Gure hezkuntza-sistemaren apustua da, beraz, euskara eta gaztelaniaren jakintza eta eskolako eta gizarteko erabilera finkatzea, geure hizkuntzak diren aldetik, eta atzerriko hizkuntza bat gehitzea irakaskuntzako eduki jakin batzuk irakasteko. Sistema horrek bermatu behar du testuinguru pertsonaletan, hezkuntzako testuinguruetan eta laneko testuinguruetan ziurtasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko behar diren hizkuntza-komunikazioko gaitasunak garatuko direla.

Hala, zalantzarik gabe, euskarak ekintza eta laguntza espezifikoak behar ditu oraindik ere, eta beharrezkoa da ekimenak bultzatzea hezkuntzaren eremuan, ikasleei hizkuntza horretan duten gaitasun-maila hobetzen laguntzeko. Horretarako, euskara gizartean eta eskolan erabil dadin sustatu nahi dute NOLEGA eta Ulibarri programen hamaika ekintzek, denak Hizkuntzaren Normalizazioaren eskutik. Horrez gain, hizkuntzak ikasteko eta komunikatzeko gaitasuna lortzeko, hezkuntza-sistemak askotariko ekintzak bultzatu behar ditu, dela irakurtzeko konpetentzia hobetzeko, dela ahozkotasuna sustatzeko eskola arlo eta eremu guztietan; dela irakasleen artean metodologia komunikatiboak eta aktiboak zabaltzeko, eta metodologia horien barruan hizkuntzak irakasteko eta ikasteko prozesuak era koordinatuan lantzeko, Hizkuntzen Trataera integratu eta integralari jarraituz.

Diagnostikoa

Hezkuntza elebiduna garatzeko bidean, 2017-2018 ikasturtean familiek hautatutako hizkuntza-ereduei buruzko datuak jaso ditugu ondoren:

- ✓ 2017-2018 ikasturtean, EAEko Haur Hezkuntzako ikasleen % 79k D ereduan hasi zuen eskolatze-aldia. B (% 17,8) eta A (% 3,6) ereduen batuketak baino lau aldiz indar handiagoa du D ereduak. Ikastetxe publikoetan, etapa honetan, D eredua unibertsala da ia (% 94,9).

- ✓ Lehen Hezkuntzan, hizkuntza-eredu nagusia D eredua da, % 74,03k D ereduan egin ditu ikasketak, % 21,23ek B ereduan eta % 4,04k A ereduan.

- ✓ DBHn nagusia den D ereduak gorantz egin du % 67,34ra iritsi arte. B ereduak ikasleen %24,11 hartzen du eta A ereduak %7,89.

- ✓ Batxilergoan, D eredua da gehiengoa; hala ere, aurreko etapetan baino ehuneko txikiagoan % 62,97; A ereduak %31,89 hartzen du. B eredua pixkanaka indartuz doa %4,46rekin.

Ia herritar guztiek Haur Hezkuntzan hasi dute euskararen ikaskuntza eta erabilera.

Pixkanaka, itunpeko ikastetxeetan, B eredutik D eredura igarotzen ari da oinarrizko hezkuntzan, eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzan, A eredu indartuaren ezarpenak, arlo edota jarduera kurrikular batzuk euskaraz , euskararen ezagutzan aurrera egitea ahalbidetzen du, bereziki LHn.

2017-18 emaitza akademikoei dagozkienez, hiru hizkuntzetan, Lehen hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 4. mailan, gainditutako ehunekoak ereduka adierazten dira hurrengo taulan.

Maila	Eredua	EL	GL	AH
LH 6.	A	88,27	90,54	89,64
LH 6.	B	88,65	93,39	89,93
LH 6	D	90,27	94,54	90,55
DBH 4.	A	86,66	83,18	82,49
DBH 4.	B	93,35	91,44	90,33
DBH 4.	D	94,73	94,28	90,12

2017ko ebaluazio diagnostikoaren euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak Lehen Hezkuntzan % 37,4ra iritsi zen eta DBHn % 45,6ra. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari dagokionez, egoera oso desberdina da. Hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, % 15 baino txikiagoa izan zen bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen %18,3 hasierako mailan daude eta %14,3 DBHko 2.mailan.

Bestalde, ARRUE ikerketak[4] 2017ko azaroan aurkeztutako txosten teknikoan adierazten duenez, Eskola-ingurunean, euskararen erabilera orokorrak gora egin du bi mailetan; hala ere, erabilera altuagoa da Lehen Hezkuntzako 4. mailan (% 59,4) DBHko 2. mailan baino (% 42,3).

Lehen Hezkuntzako 4. Mailan, 4 puntu egin du gora ikasgelatik kanpo eta ikasgelan bertan gelakideen arteko euskararen erabilerak; eta 3,2 ikasgelan irakasleekiko euskararen erabilerak; aldiz, 1,4 puntu egin du behera ikasgelatik kanpoko erabilera tasan

DBHko 2. mailan, gora egin du ikasgelan gelakideekiko erabilera-tasan, (2,2) eta irakaslearekin ikasgelan (5,5) eta patioan, (5,4) baina ia aldaketarik gabe mantentzen da patioan gelakideen arteko erabilera-tasa (0,1).

Gauzak horrela, “eleaniztasunerantz” deialdiaren bitartez, Ikastetxe publikoei dagokienez, 2016-2017 ikasturtean, 109 ikastetxek garatu zituzten proiektu eleanitzak eta 2017-2018 ikasturtean, 117 ikastetxe: 16 Arabakoak (10 LHM eta 6 DBH), 24 Gipuzkoakoak (13 LH eta 11 DBH) eta 77 Bizkaikoak (43 LH eta 34 DBH).

[4] ARRUE. ikasleen euskara erabilera eskola-giroan (2011-2015). (2018, ISEI-IVEI eta Soziolinguistika Klusterra). http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih4/eu_2091/adjuntos/Arrue_2011_2015_Txosten_teknikoa_e.pdf

	2015-2016	2016-2017	2017-2018
Filosofia ingelesez / Filosofía en inglés	2	8	14
Geografia Historia ingelesez / Geografía e Historia en inglés	12	16	25
Matematikak ingelesez / Matemáticas en inglés	4	6	12
Fisika Kimika ingelesez / Física y Química en inglés	2	7	8
Biologia Geologia ingelesez / Biología y Geología en inglés	6	11	17
Marrazketa ingelesez / Dibujo en inglés	3	9	12
Musika ingelesez / Música en inglés	3	5	10
Gorputz Heziketa ingelesez / Educación Física en inglés	9	14	20
Teknologia ingelesez / Tecnología en inglés	3	5	18
Ekonomia ingelesez / Economía en inglés	2	4	4
Informatika ingelesez / Informática en inglés	7	7	18
GUZTIRA / TOTAL	53	92	158

DBHko ikastetxeetako lanpostu-zerrendan ingeleseko B2 titulua eskatzen duten plazak nabarmen ugaritu dira 2015-2016 ikasturtetik, taula honetan ikus daitekeen moduan:

Zehazki, azken bi ikasturteetan, plazak % 41,7 ugaritu dira.

Atzerriko bigarren hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, 2017-18 ikasturtean EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxienez atzerriko bi hizkuntzatan matrikulatutako ikasle kopurua %21,5 zen 2018/1ET 2020ko %75eko helburutik oso urrun. Beraz, gure errealitateari egokitutako planteamenduak egin behar ditugu

Hobetzeko alorrak

Lehentasunezkoa da euskarazko hizkuntza-konpetentziaren emaitzak hobetzea, kontuan hartuta Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa, egindako ebaluazio diagnostikoko proben arabera.

Bestalde, arreta berezia eman behar zaie EAEko hezkuntza-sisteman sartu berri diren ikasleei, esku-hartze sakona eginez, euskarako hizkuntza-konpetentzian gutxieneko maila lor dezaten, curriculumean sartu ahal izateko.

Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoak adierazi bezala, Hizkuntzen trataera integratu eta integrala bultzatu behar dugu ikastetxeetan eta hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilerarekin lotutako alderdi guztien plangintza **Hizkuntza Proiektuan** txertatu, Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko curriculumak zehazten dituzten 237/2015 Dekretuaren 9., 10. eta 24. artikuluak eta 236/2015 Dekretuaren 10., 11. eta 24. artikuluak zehaztu bezala.

Hala, Elebitasunean oinarrituz, konpetentzia eleaniztuna helburu duen **Hizkuntza Proiektua** da hura lortzeko tresna; izan ere, aipatutako aldagai guztiak uztartu behar ditu, beti ere kontuan hartuz, hizkuntza horien artean, euskararekin gertatzen den bezala, hizkuntza gutxitu bat dagoen kasuan, testuinguru soziolinguistikoak pisu handiagoa hartzen duela. Halakoetan, hizkuntza gutxitua menderatzeko, hau da, euskara menderatzeko, gela barruko lanaz gainera, zaintzekoak dira eskolaren barruko komunikazio-egoerak eta eskola kokatuta dagoen gizarteko komunikazio-testuingurua. Hau guztia kontuan hartuta,ezinbestekoa da Hizkuntza normalkuntza proiektua Hizkuntza proiektuan uztartzea koherentzia bermatze aldera, beti ere euskarazko komunikaziorako konpetentzia hobetzeko helburuarekin.

Hizkuntzen irakaskuntzan hizkuntza bakoitzak berezkoa duena landu eta denek berdina dutena partekatuko da (hizkuntzen trataera integratua) betiere, ikasleak

modu egokian eta eraginkorrean erabiltzen duelarik egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza.

Hala ere, hizkuntzei buruzko erabakiak ez dira soilik hizkuntza-arloko irakasleen ardura. Komunikaziorako konpetentziak alfabetizazio anitza eskatzen du (hizkuntzen trataera integrala). Europako Kontseiluaren hitzak hona ekarrita, alfabetizazio horrek «…bere baitan hartzen ditu irakurtzeko eta idazteko gaitasunak, askotariko testuak, irudiak eta idatziak, inprimatuak nahiz digitalak, ulertzeko, erabiltzeko eta modu kritikoan balioesteko".

Beraz, Hizkuntza komunikaziorako tresna eta oinarrizko eta zeharkako gaitasuna denez, ikastetxeko eremu edo ikasgai bakoitzean eta guztietan garatu behar da, aipatutako dekretuen 11. artikuluan jasotakoaren arabera. Hori dela eta, hizkuntza-proiektua garatzeko lehentasunezko ahalegina ikastetxeak berak eremu didaktiko eta metodologikoan erabakiak hartzera eta gauzatzera zuzenduko da, eta batik bat irakurtzeko gaitasuna eta ahozko adierazpenarekin zerikusia dutenak bultzatzera.

Hala, eremu eta arlo guztietako irakasleek hitzezko komunikazioari, ez hitzezkoari eta digitalari lotutako helburuak eta irizpideak oso kontuan hartu behar dituzte eguneroko jardunean, eta programazioek jaso beharra dute hori guztia.

Kanpo ebaluazioetan irakurritakoaren ulermenean izandako emaitzak kontuan hartuta, Irakurtzeko konpetentziak duen hobetzeko eremuari erreparatu behar zaio, beraz, bereziki hura lantzeko ekimenak abiarazi eta jarduerak sistematizatzeko planteamendua egitea eskatu zaie ikastetxeei arlo edo irakasgai guztietan.

Hizkuntza Proiektuaren barruan, bestalde, ikasleek bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean eta atzerriko hizkuntza nahikotasunez erabiltzeko gaitasuna lortzeko helburua duen hezkuntza sistema eleaniztuna lortze aldera, ikastetxeek kanpo ebaluazio (ebaluazio diagnostikoa, PISA/PIRLS...) eta barne ebaluazioetako emaitzetan oinarritu beharra dute ikasleen hizkuntza komunikaziorako konpetentzia hobetzeko lerroak finkatu eta haien Urteko Planetan zehazteko.

Beraz, Diagnostikoan azaldutako egoera eta gure testuingurua kontuan izanik, euskal eskolaren erronkari erantzuteko xedez, elebitasuna ziurtatu beharko dugu, eleaniztunak diren eta gutxienez ere atzerriko hizkuntza bat, batik bat, ingelesa behar adina dakiten pertsonak lortzeko helburua gaineratuz.

Hobetzeko arlo hauek landu beharko lirateke:

- Klaustro gisa, Komunikazio-hizkuntzan ulermeneko eta adierazpeneko maila ona bermatzen duten prozesu didaktikoetan erabakiak hartzea. Horietan hizkuntza proiektuaren baitan Hizkuntz Normalkuntza Planak eta Irakurtze Planak berebiziko garrantzia izango dute.

- Ikasleen euskerazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzien emaitzak hobetzea 2019ko ebaluazio diagnostikoan.

- Intervención educativa intensiva con el alumnado inmigrante en la competencia en comunicación lingüística en euskera.

- Ingelesezko irakaskuntza areagotzea eta zabaltzea, Hizkuntza Proiektu eleaniztunen bitartez, non arlo bat, gutxienez, atzerriko hizkuntzaren bidez irakatsiko den.

- Atzerriko hizkuntza eta atzerriko hizkuntzan (batik bat ingelesa) irakasteko konpetentzia duten irakasleen kopurua handitzea.

- Irakasleek hizkuntzen didaktikan duten konpetentzia hobetzea bai norberaren hizkuntzan bai atzerriko hizkuntzan, eta hizkuntzak irakasten dituzten irakasleek koordinatuta lan egiteko antolaketa-bideak ezartzea, hizkuntzen tratamendu integratua eta integralaren ikuspegia aplikatuz.

HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L3.1.- Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztunean ikasleek bizitzaren alor desberdinetan bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean eta atzerriko hizkuntza nahikotasunez erabiltzeko gaitasuna bermatzea, bizitza osorako ikaskuntzaren markotik abiatuta ikasle ororen garapen pertsonalean, sozialean, akademikoan eta profesionalean laguntzeko eta taldearen gizarte kohesioa lortzeko.

ABIAPUNTUA	LORPEN ADIERAZLEAK
2016-17 / 2017-18	**2019-20**
Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasle gehienek lortu dute curriculumean ezarritako irteera profila euskarari, gaztelaniari eta ingelesari dagokienez. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 6. mailan, % 89,8k lortu du euskarazko hizkuntza-konpetentzia, % 94,08k gaztelaniazkoa eta % 90,36k ingelesekoa. DBHko 4. mailan, berriz, % 93,75ek lortu du euskarazko hizkuntza-konpetentzia, % 92,53k gaztelaniazkoa eta % 90,77k ingelesekoa Hala ere, 2017ko Ebaluazio Diagnostikoko emaitzek erakusten dute euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoak oso altuak direla maila bietan. Beraz, zenbait ekimen bideratu dira konpetentzia hori hobetzeko, bai idatziko ulermenari dagokionez, bai euskara ikasteko didaktikari eta metodologiari dagokienez. Ikasturte hasierako jarraibideetan jasota dagoen bezala, Ikastetxeek kanpo ebaluazio eta barne ebaluazioetako emaitzetan oinarrituta, ikasleen hizkuntza komunikaziorako konpetentzia hobetzeko lerroak txertatu dituzte haien Urteko Planetan. Ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeko formazioa jaso eta Irakurtze Planeko jarduerak	L3.1.1 Hobetzeko planaren helburuen betetze-mailaren egiaztapenean adierazitako helburuak bete dira: a. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. Mailan, Euskera, Gaztelania eta Atzerriko hizkuntzak gainditzeko indizea %90tik goragokoa da. b. 2018-19 ikasturteko Ebaluazio Diagnostikoetan Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailan hizkuntza komunikazio, konpetentzietarako aurreikusitako adierazleak lortu dira, hala nola: Hasierako maila: LHko 6% / DBHko 4% (euskera): 20-30 / 20-30 (gaztelania): 15 / 15 (ingelesa): 15-20 / 15-20 L3.1.2 Arlo eta Ikasgaietako programazio guztietan jasotzen dira komunikazioari lotutako helburuak eta ebaluazio-irizpideak L3.1.3 Ikastetxeetako % 30 Hizkuntza Mintegiek (Euskara, Gaztelania, Ingelesa) elkarrekin erabakitzen dute planteamendu metodologiko eta didaktikoak programazio

abiarazi dituzte. Eremu eta arlo guztietako irakasleek hitzezko komunikazioan, ez hitzezkoan eta digitalean oinarrizko zehar-konpetentziaren helburuak, edukiak eta irizpideak sartzeko formazioa jaso dute eta euren urteko programazio didaktikoetan jaso behar dituzte, testuen idatzizko eta ahozko ulermena lehenetsita; betiere programazio didaktikoa egiteko orientabide berrietan oinarrituta. Prestakuntza Ekimen Globalean (PEG) hizkuntzen trataera integratua eta integrala sustatzeko ekimenak sustatu dira. Hizkuntzen trataera integratu eta integrala bultzatu da ikastetxeetan. Eleaniztasuna deialdian parte hartu duten ikastetxe guztiek sortu dituzten materialak hezkuntza komunitatearen esku jartzea hobetsi da Irakurgunea plataforman.	integratuak egite aldera. L3.1.4 Ikastetxe publikoetan klaustrokide guztiek, %90, hizkuntzen trataera integralari buruzko prestakuntza jaso dute, Irakurriaren ulermenari lotua.

L3.2.- Euskararen erabilera sozialerako aukerak eta esparruak areagotzea gelan eta gelatik kanpo, aisialdian lehentasuna jarriz eta batik bat gazteen harreman eta komunikazio esparruetan, gazteen arteko bizikidetza euskaraz sustatzeko.	
ABIAPUNTUA	**LORPEN ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18	**2019-20**
2015eko Arrue Ikerketako emaitzetan ikasleen erabilera indizeak oinarri lerrotzat hartu dira.	L3.2.1 Ikasleen eskola giroko batez besteko erabilera (ikaskideekin gelan eta lagunekin jolasean) % 60tik gorakoa izan da, ARRUE Ikerketako emaitzen arabera. L3.2.2 Irakasleek ikasleekin %100 euskara erabili dute, ARRUE Ikerketako emaitzen arabera.

L3.3.- Ingeles hizkuntzaz gain, beste ikasgai bat ingelesez irakastea orokortzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko plangintza egitea.

ABIAPUNTUA	LORPEN ADIERAZLEAK
2016-17 / 2017-18	**2019-2020**

Eleaniztasunerantz deialdiak sustatuta, bai Lehen Hezkuntzan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, atzerriko hizkuntzan arlo kurrikular bat ematea bultzatu da.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zenbait irakasgai ingelesez ematea bultzatu da eta lanpostuen zerrendan profil batzuk aldatu dira 2015 urtetik 2018ra arte.

2017/18 ikasturtean, DBHko 2.663 ikasle daude matrikulatuta atzerriko 2. Hizkuntza ikasgaian, eta ikastetxe pribatuetan 10.4

Ingelesa	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Filosofia	2	8	14	15
Geo/Hist	12	16	25	25
Mate	4	6	12	18
Fis/Kim	2	7	8	9
Bio/Geo	6	11	17	18
Marraz.	3	9	12	13
Musika	3	5	10	11
Gorp.He.	9	14	20	22
Tekno	3	5	18	21
Ekonom	2	4	4	2
Informat	7	7	18	15
GUZTIRA	**53**	**92**	**158**	**169**

Atzerriko hizkuntza-gaitasunari eta hizkuntzen

L3.3.1 Arlo edo ikasgai bat atzerriko hizkuntzaren bidez ikastea %10 handitu da EAEko ikastetxeetan.

L3.3.2 %10 handitu da ingelesez arloak edo ikasgaiak irakatsi ahal izateko B2 maila edo maila altuagoa duten irakasleen kopurua.

L3.3.3 DBH gutxienez atzerriko bi hizkuntza ikasten duten ikasleen kopurua %10 hazi dira.

L3.3.4 Lanpostuen zerrendari dagokion Dekretua moldatu da proiektu eleanitzak garatzen ari diren ikastetxeetako lanpostuetan gehitzeko atzerriko hizkuntzaren eskakizuna.

didaktikari dagokion prestakuntza eman zaie irakasleei ikastetxe publiko zein itunpekoetan. Bai Prest_Garan eskainitako ikastaroen bidez, bai Eleaniztasuneranz deialdiak emandako baliabideen bidez.	

L3.4.- Eleaniztasunetik abiatuta, euskararen eta hizkuntzen bizikidetzaren aldeko jarrera, iritzi eta gizarte irudikapen positiboak lantzea ikasleen hizkuntza hautuan euskarak presentzia handiagoa lor dezan.	
ABIAPUNTUA	**LORPEN ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18	**2019-20**
Ikastetxeko Elkarbizitza planean hizkuntza-elkarbizitzari lotutako neurriak jaso dira eta haien zabalkundea egin da.	L3.4.1 Ikastetxeetan, hasierako neurketa tresnek erakutsitakotik abiatuta hizkuntza-elkarbizitza hobetu egin da, gazteen euskararekiko jarrerak (Lehen Hezkuntzan) eta iritziak (Bigarren Hezkuntzan) landu ondoren.
Euskararekiko jarrerak (Lehen Hezkuntzan)/ iritziak (Bigarren Hezkuntzan) curriculumaren barne landu dira bizikidetzarekin lotutako diskurtsoaren barne. Hizkuntzarekiko atxikimendua sendotzeko eskolaren, guraso elkarte eta ordezkarien eta ikasle ohien arteko elkarlana bultzatu da.	L3.4.2 Ikasleen erabilera indizeak aurrera egin ahala (ikaskideekin gelan eta lagunekin jolasean % 60), ikasleen euskararekiko jarrerak eta iritziak hobetu egin dira. L3.4.3 Irakasleen euskararen aldeko ekintza positiborako eta hizkuntzen bizikidetzarako jarrerak hobetu dira.

L3.5.- Ikastetxe bakoitzean, bere egoera soziolinguistikoaren arabera, hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera plangintza egitea, hau da, hizkuntza-proiektua egitea, non euskara ardatz den, ikasle guztien hizkuntza gaitasuna bermatzeko.	
ABIAPUNTUA	**LORPEN ADIERAZLEAK**
2016-17 / 2017-18	**2019-2020**
Ikastetxe guztiek hizkuntza proiektua garatu behar dutela agindu da Ikasturte hasierako jarraibideen ebazpenean, non hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera plangintza azaltzen den. Ikastetxeak, Eleaniztasunerantz deialdiaren bidez, hizkuntza proiektu eleaniztuna garatzen ari dira, bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren arabera eta euskara ardatz hartuta. Zehazki, 2017-18 ikasturtean, 117 ikastetxe publikok eta 2017 itunpekok parte hartu dute. Hizkuntza-proiektuaren baitan, eremu didaktiko eta metodologikoak hartuko du lehentasuna, eta batik bat irakurtzeko konpetentziak eta ahozko adierazpenak. Hori dela eta Irakurtze Plana diseinatu eta zabaldu da ikastetxe guztietan	L3.5.1 EAEko ikastetxeen % 85ak Ikastetxeko Hizkuntza Proiektu dauka, bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren arabera eta euskara ardatz duena. L3.5.2 Irakurgunean, ikastetxeetako produkzioak kokatzen dira. Irakurzaletasuna motibatzeko eta gelako estrategia didaktiko eta metodologikoak adierazten eta elkar trukatzeko aukera eskainiz.

2.4 STEAM ESTRATEGIA ETA IKASMATERIALAK ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (L4)

2.4.1.- SARRERA

Laugarren ildoa aldatu da EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko 2016ko Planaren jarraipeneko bertsio honetan.

Proposamen berri honetan, L4 ildoa bitan banatzen da:

- L4-A: STEAM esparrua, 2018an aurkeztutako STEAM Euskadi estrategia berriarekin lotuta. Horrela, erreferentzia bat gehitzen da STEAM gaitasunen garapenean, kontuan hartuta barneko eta kanpoko ebaluazioetako emaitzak eta estrategian eta STEAM gaitasunen lorpenari lotutako emaitzetan aurrera egiteko beharrezko hobekuntza-proposamenak.

- L4-B: ikasmaterialei eta IKTei dagokien ildo estrategikoa mantentzen da. Kasu honetan, gainerako ildoetan bezala, 2016ko proposamenarekin alderatuta egiten da berrikuspena.

L4-A: STEAM ESTRATEGIA

SARRERA:

UNESCOren zientziari buruzko txostena. 2030[5] txostenak agerian jartzen du gaur egun herrialde gehienak zientzia, teknologia eta berrikuntza sartzen ari direla beren garapenerako helburuetan, hazkunde ekonomiko jasangarria suspertzeko.

STEAM estrategia (ingelesezko akronimoa: Science, Technology, Engineering, Art and Mathematics) lehentasuna da berrikuntzaren alde egiten duten herrialdeetan, arlo horretako profesionalen eskaria handitzen ari delako eta joera horrekin jarraituko dela espero delako.

Esparru horretan, Hezkuntza Sailak hezkuntzako STEAM Euskadi Estrategia aurkeztu zuen 2018ko ekainean; horren helburua hezkuntza eta prestakuntza zientifikoa eta teknikoa sustatzea da hezkuntzako etapa guztietan, arlo horretako bokazioak areagotzeko, arreta berezia jarriz emakumeetan.

Ildo horretan, beharrezkoa da STEAM kultura berritzailea sustatzea, gizarte guztia sentikortzea eta hezkuntza-maila guztietan esku hartzea, haur gazteenetatik hasita.

Izen horrek biltzen dituen hezkuntzako ekimen eta proiektuek arlo horien arteko antzekotasunak eta elkarguneak aprobetxatu nahi dituzte, diziplinarteko ikuspegia garatzeko irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuan, egunerokotasuneko testuinguruak eta egoerak txertatuz eta beharrezko tresna teknologiko guztiak erabiliz. Proiektuok, zalantzarik gabe, aukera ematen dute curriculum-

[5] UNESCO (2015) UNESCOren zientziari buruzko txostena. 2030. Paris. Hemen ere eskuragarri: https://en.unesco.org/unesco_science_report

ezagutzari ekiteko zenbait arlotan (fisika, kimika, biologia eta geologia, plastika, matematikak eta teknologia), bai eta zeharkako oinarrizko gaitasunak garatzeko ere, talde-lana eta elkarlana, hitzezko eta hitz gabeko komunikazioko eta komunikazio digitaleko prozesuak, argudiatzea, ekimena eta erabakiak hartzea sustatzeko orduan.

Europako Batzordeak, *Science education for responsible citizenship*[6] txostenean, azpimarratzen du hezkuntza zientifikoa oso garrantzitsua dela Haur Hezkuntzatik egin beharreko ikaskuntza jarraitu modura, eta sei gomendio egiten ditu, STEAM diziplinak irakasteko:

1.- Prestakuntza zientifikoa bizitza osoko prestakuntza jarraitutzat hartu behar da. Hezkuntzako politiken eta sistemen ardura da bermatzea zientzia funtsezko osagaia dela adin goiztiarreko ikasle guztien derrigorrezko hezkuntzan. Gainera, guztien eskura egon behar du.

2.- Hezkuntza zientifikoak diziplinartekoa izan behar du. STEAM arlo eta diziplina guztietara zabaldu behar da. Hezkuntza-erakundeen ardura da hezkuntza zientifikoaren garrantzia sustatzea, funtsezko gaitasunak lortzeko bide modura; helburua enplegagarritasunerako hezkuntzaren trantsizioa erraztea da. Funtsezkoa da ikasleak gai izatea zientziari buruz ikasteko beste irakasgai batzuen bidez, eta alderantziz. Halaber, zientziaren, sormenaren, ekintzailetzaren eta berrikuntzaren arteko loturak eta sinergiak indartu behar dira.

3.- Irakasleen prestakuntzaren kalitatea hobetu egin behar da irakaskuntzaren eta diziplinen arloan, hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren bidez. Garapen profesional jarraitua betekizuna eta eskubidea izan behar da irakasle guztientzat, beren irakasle-ibilbide osoan zehar.

4.- Elkarlana hobetu behar da hezkuntza arautuaren eta ez arautuaren, enpresaren, ikertzaileen eta gizarte zibilaren artean, gizarte-eragile guztien partaidetza bermatzeko.

5.- Beharrezkoa da ikerketa eta berrikuntza sustatzea, baita zientziaren ulermen publikoa ere.

6.- Berrikuntza eta hezkuntza zientifikoa lotuta egon behar dira toki-mailan, eskualdean, estatuan, Europan eta nazioartean, kontuan hartuta gizartearen premiak eta munduko gertakariak.

Gomendio horietatik abiatuta, eta hezkuntza eredu pedagogikoaren esparruarekin bat etorriz, beharrezkotzat jotzen da hobekuntza-plan honetan ildo estrategiko berri bat sartzea, STEAM estrategiaren kontzeptua eta horren eremuko esku-hartzea sustatzeko.

Herrialde bat gara dadin, beharrezkoa da biztanle guztien alfabetatze zientifikoa lortzea eta, aldi berean, STEAM arloetako buruak, hots, ezagutza sortzeko eta gaurko eta etorkizuneko arazoak konpontzeko gai direnak identifikatu eta garatzea. Horrekin, lehentasuna ematen zaie STEAM arloak

[6] EUROPEAN COMMISSION (2015) SCIENCE EDUCATION for Responsible Citizenship, Brusela. Hemen ere eskuragarri: http://ec.europa.eu/research/swafs/pdf/pub_science_education/KI-NA-26-893-EN-N.pdf

herritarren prestakuntzan egiten dituen ekarpenei, alfabetatze zientifikoaren bidez; hala, erabaki informatuak hartzera eta pentsamendu kritikoa garatzera bultzatzen dira herritarrak.

Diagnostikoa

STEAM Euskadi estrategiaren esparruan, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetako irakasleak hezkuntza zientifikoan, teknologikoan eta ekintzailetzan prestatzeko eta berrikuntza sustatzeko proiektuen deialdia eta proiektu horiek abiarazteko prestakuntza ikusita, esan daiteke 116 ikastetxek gauzatu zituztela proiektu zientifikoak 2016-2017 ikasturtean, eta 144 ikastetxek, 2017-2018 ikasturtean.

Era berean, hezkuntzako bikaintasuna lortzeko prestakuntza-proiektuen deialdiak egin dira, ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuentzat, bai eta berrikuntzako proiektu integralak eta hezkuntzako berrikuntzarako prestakuntzako proiektuak eta Partekatuz Ikasi esperientziak ere, 2016-2017, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetan. Proiektu horien ehuneko batek (% 4 inguruk) STEAM estrategiari lotutako irakasgai, trebetasun eta gaitasun batzuk garatzen ditu.

Aurreko ikasturtean (2017-2018), gainera, ekimen berritzaile bat gauzatu zen, zeinetan elkarrekin lan egin baitzuten Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeek. Esperientzia horrek 3dira du izena eta teknologiarik aurreratuena hurbildu nahi die haurrei. Horretarako, prototipoak diseinatu eta Lanbide Heziketako ikastetxe batzuetan inprimatu zituzten 3Dn, eta ikasleek zuzenean parte hartu zuten, hara bertaratutako haurrei laguntzeko.

Emaitza Lehen Hezkuntzako ikasleek aukeratutako elkarte bati eman zioten, egiten duten gizarte-lanagatik eskerrak emateko.

Ekimen horiei guztiei esker, hezkuntza zientifikoaren garrantzia handitu da eta gizarteak gure kulturako oinarri zientifikoei eta zientziak horiek garatzeko egiten duenari buruz duen ezagutza eta interes orokorra zabaldu da.

Ikasleek 2017-2018 ikasturtean izandako emaitza akademikoei dagokienez, jarraian ikus daitezkeen STEAM arloetako gainditze-datuak dauzkagu hemen:

Maila	**Eredua**	**NZ**	**MAT**	
LH 6.	A	94,92	86,16	
LH 6.	B	92,36	89,41	
LH 6	D	94,68	90,13	
		B eta G	**MAT**	**F eta K**
DBH 4.	A	89,51	76,21	87,89
DBH 4.	B	94,74	87,07	90,57
DBH 4.	D	95,63	88,39	92,78

Emaitza akademikoak onak diren arren, oinarrizko gaitasunen ebaluazioari buruzko ebaluazio diagnostikoen datuek ez dute hobetzeko tarterik uzten; izan ere, 2017ko edizioan, Lehen

Hezkuntzako 4. mailan hasierako mailan zeuden ikasleak % 23,4 ziren, eta DBHko 2. mailan, berriz, % 19,3.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 2017ko emaitza aurreko ediziokoa baino askoz ere hobea izan zen. DBHko 2. mailan, berriz, ez dago alde handirik bi edizioen artean. Bada, hala ere, nabarmentzeko moduko datu positibo bat: hasierako maila gainditzen ez duten bi etapetako ikasleak gero eta gutxiago dira, nahiz eta murrizketa txikia izan.

Edizio horretan, matematikarako gaitasunari dagokionez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 15 zegoen hasierako mailan, eta DBHko 2. mailako ikasleen % 16.

Hobetu beharreko arloak

Lehen Hezkuntzan, natur zientziak ez dira matematikaren eta hizkuntzaren mailako ezagutza instrumentaltzat jotzen. Gainera, profil profesionala orokorra da eta, beraz, ez du sakontzen diziplina zientifiko espezifikoen ezagutzan.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen profilak diziplinan jartzen du arreta, jakintza zientifiko teknologikoaren arlo jakin batean.

Bi kasuetan, funtsezkoa da ezagutza didaktikoa eta metodologikoa, ikaste-prozesuak garatzeko eta STEAM gaitasunak gara daitezen lortzeko.

Zientzien irakaskuntza, hala Lehen Hezkuntzan nola Bigarren Hezkuntzan, sarritan faktuala eta errepikakorra da, eta ez du tarte handirik uzten fenomenoak esploratzeko eta ikertzeko, ez eta zientziaren ideia handiak ulertzeko ere.

Hobetu beharreko arlo baten arabera, aldaketak egin behar dira estrategia metodologikoetan, ikasleek oinarrizko gaitasunak gara ditzaten eta, hala, beren egunerokotasuneko arazo edo erronka garrantzitsuei eskola-ikerketan oinarritutako hezkuntza-estrategien bidez ekin diezaieten.

Hezkuntza zientifikoa hobetzeko nazioartean egindako ikerketen artean *Rocard Science Education Now. A renewed padagogy for the future of Europe*[7] txostena nabarmentzen da; txosten horretan adierazten denez, aldaketa nabarmena egin behar da irakaskuntzan, dedukzio-metodoetatik ikerketan oinarritutako metodoetara igaroz, gazteek zientziekiko duten interesa handitu eta emaitzak hobetzeko.

Gure gizarteak etengabeko aldaketa teknologikoko etorkizuna du aurretik, eta aurreikusten da oraindik existitzen ez diren eta, agian, irudikatu ezin ditugun zenbait enplegu sortuko direla, horietako asko teknologien aurrerapenekin lotuta. Aldaketa horien aurreko ziurgabetasuna hein batean konpontze aldera, hezkuntza-komunitateak esaten du arreta handiagoa jarri behar dela

[7] EC (2007). Science Education Now. A renewed padagogy for the future of Europe

eredu fisikoak, biologikoak, konputazionalak, artistikoak eta matematikoak ikasteko eta sortzeko praktika eta trebetasunetan, prestakuntza eta egoera jakin batzuetarako oinarria izan daitezen.

Kontuan hartuta aurreko neurri guztiak eta gure testuingurua, hobetu beharreko arlo hauei ekin beharko genieke:

- ✓ Diziplinarteko STEAM proiektuak gauza daitezen sustatzea, oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzeko eta STEAM estrategia curriculumean integratzeko. Horretarako, STEAM irakasgai guztiak barne hartzen dituzten esperientziak sortu behar dira.
- ✓ Pentsamendu zientifikoaren kultura sustatzea, ikasleek erabakiak hartu behar dituztenerako; hori oso erabilgarria da ikasgelan eta ikasgelatik kanpo. STEAM hezkuntzari esker, ezagutza teknologiko eta zientifiko sorta bat barnera daitezke, eta ezagutzok etorkizuneko edozein egoeratan aplika daitezke, ikuspegi integratutik. Ezagutzaren integrazio horri esker, jakintzaren arloen arteko harremanak hobeto ezagutu daitezke eta, hala, proiektuetan partaidetza-maila handiagoa izatea bermatzen da.
- ✓ Guztien eskura dagoen prestakuntza zientifiko jarraitua. Deskribatu berri dugun munduan, ikasleek etengabe prestatzen jarraitu behar dute, beti aldatzen ari den lan- eta gizarte-agertokian aukerarik ez galtzeko.
- ✓ Irakasleen prestakuntza jarraitua eta diziplinartekoa, irakasle rolaz gain, ezagutzen eta metodologien kudeatzailea baita, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez, STEAM ikaskuntzaren barruan.
- ✓ STEAM hezkuntza osatzen duten arloetako irakasleen arteko elkarlana eta koordinazioa sustatzea. Beharrezkoa da irakasleek elkarren arteko komunikazio ona izatea eta metodologia hau gelan aplikatzeko aukera ematen duten proiektuetan parte hartzea.
- ✓ Gune fisiko eta pedagogikoak sortzea, ikasleek aukera izan dezaten proiektu horiek erosotasunez gauzatzeko, horretarako elkarlana eta talde lana behar izaten baita, sarritan. Tokiotan zientziako, ingeniaritzako, matematiketako, teknologiako eta arteko ikasgelek izan ohi dituzten ezaugarriak bildu behar dira.
- ✓ Diziplinarteko prestakuntza, «enplegagarritasunerako hezkuntza» errazteko, zientziaren, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren arteko loturak indartuz.
- ✓ Familiak, komunitateak eta abar prestatzea eta ikasketa arautu eta ez-arautuaren, enpresaren eta ikerkuntzaren arteko mugak ezabatzea, jakintzen integrazio handiagoa lortzeko.

HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK L4-A: STEAM ESTRATEGIA

L4-A.1.- STEAM gaitasunei dagokienez kanpo-ebaluazioetan lortutako emaitzak hobetzea.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
• PISA 2015 programan zientziarako gaitasunean izandako emaitzen arabera, ikasleen % 20 mailarik txikienean dago, % 60 tarteko mailan eta % 20 maila aurreratuan. • PISA 2015 programan matematikarako gaitasunean izandako emaitzen arabera, ikasleen % 20 mailarik txikienean dago, % 54 tarteko mailan eta % 26 maila aurreratuan. • Lehen Hezkuntzako 4. mailan zientziarako gaitasunari buruz 2017an egindako diagnostiko-ebaluazioak erakusten duenez, ikasleen % 23,6 hasierako mailan dago, % 55,8 tarteko mailan eta % 20,6 maila aurreratuan. • DBHko 2. mailan, ikasleen % 19,3 hasierako mailan dago, % 64,2 tarteko mailan eta % 16,5 maila aurreratuan. • Lehen Hezkuntzako 4. mailan matematikarako gaitasunari buruz 2017an egindako diagnostiko-ebaluazioak erakusten duenez, ikasleen % 15,0 hasierako mailan dago, % 55,7 tarteko mailan eta % 29,3 maila aurreratuan. • DBHko 2. mailan, ikasleen % 16 hasierako mailan dago, % 59,5 tarteko mailan eta % 24,5 maila aurreratuan.	L4-A.1.1 Zientziarako gaitasunari dagokionez, PISA 2018ko hasierako mailan ikasleen % 15 baino gutxiago egotea lortu da. L4-A.1.2 Matematikarako gaitasunari dagokionez, PISA 2018ko hasierako mailan ikasleen % 15 baino gutxiago egotea lortu da. L4-A.1.3 Lehen Hezkuntzako 4. mailan zientziarako gaitasunari buruz 2019an egindako diagnostiko-ebaluazioan, hasierako mailan dauden ikasleak % 20 baino gutxiago izatea lortu da. L4-A.1.4 DBHko 2. mailan zientziarako gaitasunari buruz 2019an egindako diagnostiko-ebaluazioan, hasierako mailan dauden ikasleak % 15 baino gutxiago izatea lortu da. L4-A.1.5 Lehen Hezkuntzako 4. mailan matematikarako gaitasunari buruz 2019an egindako diagnostiko-ebaluazioan, hasierako mailan dauden ikasleak % 15 baino gutxiago izatea lortu da. L4-A.1.6 DBHko 2. mailan matematikarako gaitasunari buruz 2019an egindako diagnostiko-ebaluazioan, hasierako mailan dauden ikasleak % 15 baino gutxiago izatea lortu da.

L4-A.2.- Irakasleen prestakuntza zientifiko-teknikoa eta didaktikoa sustatzea, STEAM esparruaren hezkuntza-etapa guztietan.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Irakasleak prestatzeko ikastaroak eta jarduerak egin dira, hala Berritzeguneen bidezko ikastaro eta mintegien bitartez nola Prest Gara deialdien, hezkuntzako bikaintasuna lortzeko prestakuntza-proiektuen eta STEAM berrikuntzako proiektuen bitartez.	L4-A.2.1 STEAM trukeekin eta esperientziekin lotutako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen sare bat sortu da, hezkuntzako bikaintasuna lortzeko prestakuntza-proiektuen deialdian, «Partekatuz Ikasi Esperientziak» modalitatean. L4-A.2.2 Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxe pribatuetara zabaldu da STEAM berrikuntzako proiektuak garatzeko deialdia. L4-A.2.3 STEAM proiektu bat aurkeztu duten ikastetxeen kopurua % 10 igo da, 2018-2019 ikasturteko deialdiarekin alderatuta. L4-A.2.4 STEAMen prestakuntza jarraituko ikastaroetan parte hartzen duten ikasleen ehunekoa handitu da, hala Berritzeguneek nola unibertsitateek antolatutakoei dagokienez. L4-A.2.5 Zuzendaritza-taldeei prestakuntza eman zaie, irakasleei laguntza eman diezaieten STEAM esperientziak abian jartzeko.

L4-A.3.- Ikasleetan eta, bereziki, nesketan STEAM arloko (zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematikak) bokazioak eta helburu profesionalak sustatzea.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
STEAM arloan trebatutako profesionalen eskaria handitzen ari da eta joera horrekin jarraituko dela espero da. Alabaina, prestakuntza zientifiko-teknologikoa aukeratzen duten ikasleen kopuruak ez du eskariaren erritmo berean egiten gora. Generoari eta steam bokazioei dagokienez, Zenbait neurri jarri dira martxan, denak ere, Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean jasotakoak. Ildo horretatik hainbat jarduera burutu dira prestakuntzaren arloan, Emakunderen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana sustatzeko eta abar. Askotariko ekintzak egin dira STEAM irakasgaien ikaskuntzako emaitzak hobetzeko eta gazteei zuzendutako dibulgazio zientifikoa sustatzeko. Gainera, curriculuma garatzeko eta oinarrizko konpetentziak lortzeko materialak sortu eta askotariko webguneak sortu eta mantendu dira. Beste erakunde batzuekin elkarlanean, zenbait proiektu eta jarduera egin dira, eta ikasle askok parte hartu dute haietan: Zientzia azoka, Kristalizazioa ikasgelan, First Lego League Euskadi, Olinpiada matematikoa, zientzia astea, Golab eta Nextlab proiektuak, Training caravan, BTEKera bisitaldiak, etab. Era berean, zientziaren dibulgaziorako jarduerak egin dira ikasle eta herritarrentzat, esaterako, bisitaldiak eta	L4-A.3.1 Gutxienez 3 ekimen egin dira emakumeen presentzia sustatzeko STEAM munduan. L4-A.3.2 Lanbide Heziketako ikastetxeekiko lankidetzako esperientzien kopurua handitu da. L4-A.3.3 STEAM berrikuntzako proiektuen sailaren deialdian aurkeztutako proiektuetan generoaren alderdia txertatu da. L4-A.3.4 Irakasle orientatzaile eta aholkularientzako prestakuntza-jarduerak sustatu dira, zientziarako eta teknologiarako bokazioak sustatzeko, batez ere nesken artean. L4-A.3.5 Prestakuntza zientifikoa eta zientziarekiko interesa sutatuko duten jarduerak sustatzea ikasleetan.

prestakuntzako mintegiak BTEKera, Naukas programa, Zientzia Klip lehiaketa, Ciencia en Acción, Bizitza Zientifikoen Jardunaldia eta Zientziarekin Solasean Jardunaldiak.	

L4-A.4. -Dibulgazioa eta kultura zientifikoa eta teknologikoa sustatzea hezkuntza-komunitate osoan eta EAEko herritarren artean, hezkuntza arautua eta ez-arautua hurbilduz.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Hezkuntza Sailak bere babesa eta laguntza eman du zenbait erakundek gauzatutako dibulgazio zientifikoko askotariko jardueretan (unibertsitatea, BC3, Eureka Zientzia Museoa, etab.). STEAM Euskadi estrategia berria aurkeztu da.	L4-A.4.1 Jardunaldi bat egin da, STEAM proiektuak ezagutzeko. L4-A.4.2 Zientzia-dibulgazioko jarduerak egin dira, IGE eta elkarteetan. L4-A.4.3 Webgune bat sortu da, Hezkuntza Sailak sustatutako eta babestutako STEAM ekimenak aurkezteko. L4-A.4.4 Erakundeekin zientzia-dibulgaziorako egiten diren jarduerak ugaritu dira.

L4-B: IKASMATERIALAK ETA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

SARRERA

UNESCOk esan zuen kalitatezko hezkuntzarako sarbide unibertsala guztion ona dela, mundu baketsua eraikitzeko. Gaur egun, gizarteak asko aldatzen ari dira eta, horri aurre egiteko, heziketako modu berriak behar dira, arreta ikaskuntza-inguruneetan eta justizia, gizarte-ekitatea eta munduko elkartasuna sustatuko duten ikuspegietan jarriko dutenak. Horretarako, Hezkuntza Baliabide Irekien Adierazpena[8] sustatu zuen eta adierazi zuen baliabide digitalek aukera asko ematen dituztela guztiontzako hezkuntza irekirako sarbidea, ezagutzen eta jardunbide egokien trukea eta, azken batean, bizitza osoan zehar ikasten duten komunitateen sorrera errazteko.

Diagnostikoa

Materiala sortzeari dagokionez

Euskaraz material didaktiko gutxi dagoenez, eta Hezkuntza Baliabide Irekien materialak sortzeko eta trukatzeko erronkaren aurrean, Hezkuntza Sailak zenbait deialdi egiten ditu urtero.

Hobekuntzarako 2016ko Planean adierazten denez, EIMA 2.0 deialdiak dirulaguntzak ematen ditu euskarazko material digitalak argitaratzeko, unibertsitatekoak ez diren mailetarako. Jarraian, deialdi horri buruzko datuak ikus daitezke:

EIMA 2.0

2015-2017 EIMA 2.0-ri dagozkion datuak. Hiru urte horietan, EIMA 2.0 programak Creative Commons motako 16 ikasmaterial eta Jabetza Pribatuko 11 lagundu ditu.

EIMA 2.0 (Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko dirulaguntzak)						
	Eskabideak	Eskatzaileak	Emandakoak	Diruz laguntzeko materialak	Dotazioa	Banatuta
2016	19	14	19	8	200.000	170.000
2017	34	16	32	11	200.000	170.000

[8] HEZKUNTZA BALIABIDE IREKIEI BURUZKO MUNDUKO KONGRESUA, UNESCO, PARIS, 2012KO EKAINA
http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/CI/CI/pdf/Events/Spanish_Paris_OER_Declaration.pdf

JAKINTZAGAIAK

	2016	2017
Biologia eta Geologia	**2**	**-**
Euskara eta Literatura	**2**	**4**
Fisika eta kimika	**1**	**-**
Geografia	**1**	**-**
Geografia eta Historia	**1**	**2**
Historia	**1**	**-**
Matematika	**2**	**7**
Musika	**1**	**2**
Natur-zientziak	**1**	**2**
Teknologia	**-**	**2**
Gizarte zientziak, Geo eta Hist.	**2**	**-**
Gai globalizatuak	**2**	**2**
Ekonomia	**1**	**-**
Komunikazioa	**1**	**1**
Hainbat	**-**	**1**

Bestalde, IRALE R 400 ikasmaterialetarako deialdia ezarri da,helburu hauekin:

1. Euskaraz ikasteko edo **irakasteko materialak ekoiztea**, ikasleen eta curriculumaren ezaugarriei egokituak.

2. Eskolaren gaurkotze-prozesua dela-eta, **ikasgelak material digitalez hornitzea**.

3. Irakasleek beren jakintzagairako ikasmaterialak sortuz edo prestatuz, beren **euskara-maila hobetu eta irakasgaitasuna sendotzea**.

2015-2018 bitartean Irale R-400 ikastaroetan sortutakoak 205 dira guztira. Denak daude sarean eskuragarri eta horietatik 44 eduki digitalak dira (webguneak, multimedia aplikazioak…). Gainerakoak EIMA Katalogotik eskuratu daitezkeen dokumentuak dira.

Ikastetxeek bilakaera izan dute inprimatutako ikasmaterialen kudeaketan, beren errealitatera egokitzen diren edo material digitalak pixkanaka sartzen dituzten beste batzuk aurkitze aldera, zenbait faktoreren arabera: hezkuntza-maila, irakasleak, ikastetxeen proiektuak, irakasgaiak eta beharrezko aldaketak sustatuko dituzten hezkuntza-politikak. Horretarako, 2017-2018 ikasturtetik, Sailak deialdi hau egiten du: curriculuma garatzeko materialak eta baliabideak, ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleentzat.

Programak material digitalen prestaketa eta erabilera sustatzen ditu, inprimatutako curriculum-materialekin batera.

IKTak sartzeari dagokionez

Curriculumari buruzko indarreko dekretuan helburu hau ezartzen da: «Oinarrizko Hezkuntza amaitu duen ikasleak konpetentzia digitala eta mediatikoa izan behar du, konpetentzia digitalaren arloko esparru europarraren ildoan, egungo herritarrek eskatzen duten alfabetatze eta gaikuntza funtzional osoa bermatzeko». Hori lortzeko, baliabide digitalek arlo eta irakasgai guztietan egon behar dute, normaltasunez sar daitezen irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuetan[9], eta ezinbestekoa da irakasle guztien gaitasun digitalak lantzea, baliabide digitalen ikasgelako benetako erabilera ardatz duen prestakuntza sustatuz eta profesionalen ikaskuntzako eta elkarlaneko komunitate birtualak sortuz, hezkuntza baliabideak erabiltzeko[10].

Ikasleei dagokienez, Prestakuntzako Ekimen Globalaren bidez, gaitasun digitala garatzeari buruzko modulu bat eskaini zaie ikastetxe publiko guztiei; modulu horretan, landu beharreko DIGCOM maila guztiak zehazten dira. 2017-2018 ikasturtean, modulu hori Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 26an egin da. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen % 18an eta Bigarren Hezkuntzako % 22,5an baliozkotu da, hots, irakasleen ezagutza eta jardunbidea bat zetorren, gutxienez, moduluan emandako erreferentziekin.

Ikastetxeen digitalizazioari dagokionez, egiaztatu da ikastetxe publikoek IKT heldutasuneko ereduan duten maila handitu egin dela azken urteotan, metodologia-aldaketa sustatu baitute ikaskuntzan eta digitalizazioa hobetu baitute irakaskuntzako, administrazioko eta informazio eta komunikazioko prozesuetan.

[9] 236/2015 Dekretuaren 12. artikulua.

[10] Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenaren 12. artikulua https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf

Ereduak hiru maila ditu; maila horiek, apurka-apurka, areagotu egiten dute ikastetxeko prozesuen digitalizazio-maila eta irakasleek ikasgeletan IKTak erabiltzeko duten inplikazioa:

- Oinarrizko maila: trebatzea eta erabiltzea
- Tarteko maila: ikasgelak digitalizatzea
- Maila aurreratua: ikastetxea birtualizatzea

2017-2018 ikasturtean hiru mailetan egon den aurrerapenari buruzko datuek erakusten dutenez, 436 ikastetxe ziurtatu daude, horietatik 136 oinarrizko mailan. 239 tarteko mailan eta 61 maila aurreratuan. Beraz, ziurtatutako ikastetxeen ehunekoa % 93 da eta ikastetxe gehienak tarteko mailan daude, % 51; oinarrizko mailan % 29 eta aurreratuan % 13.

Sare_Hezkuntza Gelan berrikuntza-proiektua aukera berriak ematen ari da baliabide digitalak erabiltzeari eta prestatzeari buruz, eta horiek ezartzeko zailtasunei buruz; aukerok erreferentziatzat har daitezke ikastetxe publikoek eta administrazioak datozen urteetan hezkuntza digitalerako trantsizioa egiteko hartu behar dituzten erabaki zailetan.

2017-2018 ikasturtean, sarea 218 ikastetxe publikok osatzen dute, guztizkoaren % 47 dira. Konektibitatearen hobekuntza eta ekipamendu berria (arbel digitalak Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan) oso erabilgarria da proiektu digitalak ikastetxeetan ezartzeko orduan.

Ikastetxe publiko eta pribatuek eskolen arteko eTwinning lankidetza-proiektuetan duten partaidetzan, bilakaera ikusi da sareko lanean eta ikaskuntzako agertoki berrietan.



Europako eTwinning plataforman izena eman duten irakasleak (ikastetxe publiko eta itunpekoetakoak).



Hobetu beharreko arloak

Hezkuntzako eragileek sortutako material didaktikoen zabalkundea eta banaketa hobetzea beharrezkoa da, hezkuntza-komunitate osoarentzako plataforma semantiko edo erreferentziazko gordailu baten bidez.

Bestalde, ikastetxeen eraldaketa teknologiko eta pedagogikoa zenbait alderditan hobetu daiteke:

- Ikasle eta irakasleentzako ekipamendua.
- Barneko sare-konektagarritasuna ikastetxe publiko guztietan.
- IKTen irakasle dinamizatzailearen profila.
- Irakaskuntzari euskarria emateko, hezkuntza-kudeaketako tresna eraginkorrak erabiltzea: irakasleen koaderno digitala, elkarlanerako tresnak, euskarazko berezko hezkuntzako aplikazioak eta ikasgelako irakasleen premietara egokitutako euskarri-zerbitzua.

Azkenik, erabateko kultura digitalean murgilduta gaudenez, sarean dauden beste proposamen eta ekarpen batzuk baliozkotuz ikas daiteke, kalitatea bermatzen duten irizpideak erabiliz.

Horregatik, hezkuntzako berrikuntzan, jarduteko eta hausnartzeko komunitateak behar dira, zeinak hezkuntza-baliabide askeak emango dituzten, irakasleek aurrerakuntza profesionala hobetu dezaten eta ikastetxeek ikaskuntzako agertoki berriak pentsa ditzaten, hurbileko testuinguruak beste errealitate batzuetara zabalduz.

4-B-2.4.2.- MATERIAL DIDAKTIKOEI ETA IKT-EI BURUZKO HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L4-B.1.- Ikasmaterialaren eta hezkuntza-edukien prestaketa eta hedapena sustatzea (hezkuntza-baliabide irekiak, eduki digitalak eta inprimatuak...); edukiok bat etorri beharko dute hezkuntza eredu pedagogikoaren esparruan jasotako proposamen didaktiko eta metodologikoarekin, ikasle guztien gaitasunak garatzen eta irakaskuntzako metodologia berritzen laguntzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Berritzegune nagusiak, beste Berritzegune batzuen laguntzarekin, prestakuntzako moduluak egin ditu hizkuntzako, matematiketako, zientziako eta komunikazioko gaitasunen eta metodologiaren eta ebaluazioaren prestakuntzari buruz, EAEko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eman nahi den Prestakuntza Ekimen Globalera bideratuta. Ikastetxeek ikasmaterial digitalak sortzeari eta erabiltzeari dagokionez, nabarmendu behar da Sare_hezkuntza Gelan sareko ikastetxe berritzaileek komunitatearen hezkuntza digitalean eman duten aurrerapausoa; izan ere, 2017. eta 2018. urteetan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako beste 112 ikastetxe batu dira. Euskarazko ikasmaterial digitalak prestatzeko EIMA 2.0 programak dirulaguntza eman du (540.000 €), 27 ikasmaterial sortzeko 2015, 2016 eta 2017ko deialdietan; ikasmaterial horietatik 16 Hezkuntza Baliabide Irekiak dira. Era berean, euskarazko ikasmaterialak sortzea sustatzeko IRALE R-400 programaren bidez, 205 material sortu dira (2015etik 2018ra); horietatik 44 baliabide digitalak dira (aplikazioak, multimedia, webguneak...) eta EIMAren katalogoan daude. Ekimen horien bidez sortzen ari diren euskarazko Hezkuntza Baliabide Ireki guztiak biltzeko eta hezkuntza-komunitatearen eskura jartzeko, plataforma semantiko bat diseinatu da, EAEko ikasleen curriculum-garapenari laguntzeko ikasmaterialak sailkatu eta errazteko.	L4-B.1.1 Curriculum-material digitalak zabaldu dira, eredu pedagogikoaren hezkuntza esparru berrian unitate didaktikoak prestatzeko eta ebaluatzeko gidaren arabera prestatuak. L4-B.1.2 Sare_Hezkuntza Gelan sareko ikastetxe publiko guztietan, ikasmaterial digitalen erabilera areagotu da, curriculumaren arlo eta irakasgai guztietan. L4-B.1.3 Deialdiak egin dira euskarazko materialak sortzeko eta egokitzeko, Oinarrizko Hezkuntza osoa hartzen duen proposamen bati erantzunez, hezkuntza eredu pedagogikoaren esparruarekin eta curriculum-materialak prestatzeko gidarekin bat etorriz. L4-B.1.4 EIMA 2.0 programaren dirulaguntzari esker, ikasmaterialen % 60 Hezkuntza Baliabide Ireki digitalak dira. L4-B.1.5 Sare_Hezkuntza plataforma semantikoa finkatu da, curriculuma garatzen laguntzen duten askotariko Hezkuntza Baliabide Irekiekin, kuantitatiboki eta kualitatiboki.

L4-B.2.- Ikastetxeen eraldaketa teknologiko eta pedagogikoa sustatzea, hezkuntza-proiektuak hobetzeko, Sare_Hezkuntza Gelan proiektuen bitartez.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
2017ko eta 2018ko Sare_hezkuntza Gelan deialdietan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 112 ikastetxe batu dira; hala, guztira 258 ikastetxe publiko dira orain (% 47). Ikastetxe berritzaile horietan, ikasle bekadunek gailu digital berriak lortzeko 1.255.600 €-ko dirulaguntza eman da, 169 ikastetxeri (63 publikoak eta 106 itunpekoak) eta 7.206 eskabideri (sare publikoko 2.395 ikasle eta itunpeko sareko 4.811 ikasle) erantzunez. Bestalde, prestakuntzako moduluak diseinatu dira gaitasun digitaletarako, Prestakuntzako Ekimen Globalaren barruan, ikasleen eta irakasleen gaitasunen garapena sustatzeko. Hala, EAEko ikastetxe publikoetan emateari ekin zaio, hain zuzen ere, ikastetxeen % 60an. Ikastetxeen IKT heldutasuneko ereduaren ikuskaritzan, 73 ikastetxe publiko aurkeztu dira (2017-2018 ikasturtea) eta ziurtatze maila hauek lortu dituzte: 15 ikastetxek oinarrizko maila, 43k tarteko maila eta 15ek maila aurreratua. Oro har, ikastetxe publikoen % 93k dagoeneko lortu du heldutasun teknologikoko mailaren bat: % 29k oinarrizkoa, % 51ek tartekoa eta % 13k aurreratua. Bestalde, Sare_hezkuntza programako ikastetxeetako IKTen irakasle dinamizatzailearen gaitasun-profila gehitu da. EAEko ikastetxe publiko guztietan 100 mb-eko zuntzezko konexioa daukate. Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, wifi-sarea berritu da eta barneko eta kanpoko konektibitate ona dute.	L4-B.2.1 Sare_Hezkuntza Gelan proiektuetarako dirulaguntzen Agindua eta Ebazpena argitaratu dira, (70+70) eta ikastetxe publikoen % 80 Sare_Hezkuntza Gelan sarean daude. L4-B.2.2 Sare_Hezkuntza Gelan ikastetxe guztietan eskolako materialaren modalitatearen beka jaso duten ikasleentzako gailu digitalak lortzeko laguntzei buruzko Agindua argitaratu da. L4-B.2.3 Gaitasun digitaletako prestakuntza ezarri da, Prestakuntzako Ekintza Globalaren bidez, EAEko ikastetxe publikoen % 95ean. L4-B.2.4 Ikastetxe publikoen % 90ek mailaren bat igo du heldutasun teknologikoaren profilean. L4-B.2.5 Prestakuntza eman zaie Sare_hezkuntza ikastetxeetako dinamizatzaileei. L4-B.2.6 Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoen % 95ek kanpoko eta barneko konektibitate ona dauka. L4-B.2.7 Irakasleek koaderno digitala dute, ikasgelako jarduerak programatu eta ebaluatzeko, curriculumaren Dekretuan etapa bakoitzerako ezarritakoaren arabera. L4-B.2.8 Irakasleek lankidetzako ingurune bat dute, berezko hezkuntza-aplikazioekin eta ikasgelako irakasleen premietara egokitutako euskarri-zerbitzuarekin.

Ekipamenduari dagokionez, EAEko ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasgela guztietan arbel digitalak jarri dira. Irakasleen eskura jarri da Office 365 Education plataforma, lankidetzarako tresnak eta aplikazioak izan ditzaten.	

L4-B.3.- EAEko hezkuntzako eta gizarteko eragile guztien arteko lankidetza sustatzea, sarean ikasteko komunitateak osatzeko, ezagutza sortu eta zabaltze aldera.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Eskolen arteko eTwinning proiektuetako partaidetza handitzen ari da, irakasle ordezkarien sustapenari eta ikasturtean egindako jardunaldiei esker. Plataforma semantiko bat eta jarduteko komunitateen sare sozial bat diseinatu dira EAEko irakasleentzat: ikasgunea eta, horren barnean, Irakurgunea eta Bizikasigunea.	L4-B.3.1. Sare Hezkuntza Gelan ikastetxeen % 25ek eskola arteko lankidetza-proiektuetan hartu du parte (eTwinning). L4-B.3.2. Sare Hezkuntza Gelan ikastetxeetako irakasleen % 50ek plataforma semantikoko sareko ikaskuntza-komunitateetako batean parte hartzen du. L4-B.3.3. EAEko irakasleentzako plataforma semantikoan, STEAMgunea gunea ezarri da.

2.5.- EBALUAZIOA ETA IKERKETA (L5)

Ebaluazioa ezinbestekoa da ikastetxeko esku-hartzeko eremu nagusiei eragiten dieten erabakiak hartzean. Ikasleekiko esku-hartzea, ikastetxeko kudeaketa nahiz hezkuntza-sistemaren proposamenak modulatzeko.

Barneko ebaluazioaren kontzeptuak eta jardunbideak bilakaera izan du, ez baitago berariazko proba edo azterketa batzuetara lotuta, eta gero eta kontzientzia handiagoa baitago horiei irakasleen artean adostutako irizpide argiz ekiteko beharraz.

Urteotan, kanpoko ebaluazioak protagonismo argia izan du. PISA ebaluazioen edo ebaluazio diagnostikoen emaitzak komunikabideetan hedatzen eta gure gizartera heltzen dira. Horren aurrean, egokia dirudi adieraztea kanpoko ebaluazioa ikastetxeetako barneko ebaluazioaren osagarria dela esatea. Abantaila argiak ditu: proba bera egitea ikastetxe desberdinetako ikasleen lagin bati, erabilitako itemak gaitasunen ebaluazioarekin lotuta daudela eta ISEI-IVEI irakas sistemaren bidez ikastetxeek lortutako emaitzei buruzko informazio zehatza jasotzen dutela. Modu anonimoan, ikastetxe bat antzeko beste ikastetxe batzuekin aldera daiteke eta, horren aurrean, eta barneko ebaluazioan lortutako emaitzak ikusita, erabakiak har ditzake urteko planean sartzen dituen hobekuntza-ekintzekin.

Kanpoko ebaluazioa alde batera utzi ezin den informazioa ari da ematen. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren hasierako mailako emaitzak ikusita, arlo horri ahalik eta lasterren ekin behar zaiola ulertzen da.

Barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak aztertuz, irakasle-taldeek informazio pribilegiatua izan dezakete, ikasleekin modu zehatzagoan jarduteko, hautemandako ahulguneetan arreta jarrita.

Diagnostikoa

Ikasleen (kanpoko) ebaluazioa

Plan hau 2016an aurkeztu zenetik, zenbait bilera egin dira ikastetxeetako zuzendaritzekin eta hezkuntza-komunitateko zenbait ordezkarirekin (gurasoen elkarteak, langileen eta nagusien elkarteak, ikastetxeetako zuzendarien elkarteak...), EAEko Hezkuntza Sisteman aurreikusitako ebaluazioei buruz sentikortzeko, informatzeko eta prestatzeko 2018-2024 Planaren esparruan.

Hezkuntza-arloko gero eta erreferentzia eta ikerketa gehiagok erakusten dutenez, ikasle eta ikastetxeentzat ondorio akademikorik ez duten kanpo-ebaluazioetan, emaitzak, hein batean, ikasleen ahaleginaren ondorioa dira, ez soilik ikasleen gaitasun-mailaren emaitza. Hau da, interes falta edo nekea dela-eta, ikasleek ez dute beharrezko ahalegina egiten beren benetako gaitasuna erakusteko.

PISA 2015 ebaluazioetan parte hartu zuten ikastetxeetako zuzendaritza-taldeei egindako inkestan, EAEk ebaluazio horretan puntuak galtzearen arrazoia zein izan zitekeen galdetu zitzaien; haien ustez, behin eta berriz esan zutenez, horren arrazoia ikasleen motibazio eta interes falta zen, ez baitzuten ezer jokatzen. Ildo horretan, gero eta herrialde eta erkidego gehiago ari dira emaitzetako inpaktu hori murriztuko duten neurriak hartzen.

Beste elementu batek ere izan dezake eragina horrelako kanpo-ebaluazioen emaitzetan: ebaluatutako ikasleek ez dituzte ezagutzen horrelako ebaluazioetako itemen ezaugarri teknikoak.

Bi elementu horiek kontuan hartuta –ahalegin-maila eta itemak ez ezagutzea–, eta ikastetxeak ebaluazio-prozesu horietan nahasteko interesa dagoenez, Hezkuntza Sailak zenbait ekintza eta prozesu jarri zituen martxan, material eta dokumentu sorta bat sortzeko, zeinak lagungarri izango diren, batetik, ebaluazioak hobeto eta hurbilagotik ezagutzeko eta, bestetik, ikasleek, irakasleek eta ikastetxeek EAEko hezkuntza-sistemaren ebaluazio-prozesu horiekiko jarrera positiboak izan ditzaten lagunduko duten sentikortze-prozesuak sustatzeko. Plan honen helburua ez da probak prestatzea, ebaluazio horietan parte hartuko duten ikasleen gaitasuna hobetze aldera; hori, oso zaila izateaz gain, ez da egokia eta ez du garrantzi handirik. Hauek dira planaren helburuak:

- EAEko hezkuntza-komunitate osoari eta, bereziki, ebaluazio bakoitzean lagin adierazgarrian hautatutako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiei jakinaraztea zein diren ikasturterako aurreikusitako ebaluazio bakoitzaren ezaugarriak.

- Ikastetxeak kanpoko ebaluazioen garrantziaz sentikortzea, hala etapa erdiko eta amaierakoei nola nazioartekoei dagokienez (PISA, PIRLS, TIMMS...), eta jakinaraztea haien inplikazio positiboa ezinbestekoa dela horiek behar bezala gauzatuko direla bermatzeko.

- Laguntza-zerbitzuak inplikatzea –Berritzegune, ikuskaritza eta ISEI-IVEI– ebaluazio bakoitzerako hautatutako lagineko ikastetxeak sentikortzeko eta informatzeko/prestatzeko prozesuan.

- Ikasleek eta, bereziki, PISA azterketan parte hartuko dutenek horrelako kanpo-ebaluazioekiko duten jarrera hobetu dezaten sustatzea.

- Kanpo-ebaluazioen eta barne-ebaluazioen emaitzak aztertzea eta batera eta modu osagarrian baloratzea ikastetxeekin, haien planak eta hobekuntzarako ekintzak eguneratzean.

2003., 2006., 2009., 2012., 2015. eta 2018. urteko PISA ebaluazioei eta 2009., 2010., 2011., 2013., 2015. eta 2017. urteetan ikastetxe guztietako Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiei egindako etapa erdiko diagnostiko-ebaluazioei esker, asko garatu da ebaluazioaren kultura. 2017-2018 ikasturtean, lehen aldiz, ikasleen irteera-profilaren diagnostiko-ebaluazioa egin zaio, etaparen amaieran, Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikastetxeen lagin adierazgarri bati. Hain zuzen ere, 2018ko nazioarteko PISA ebaluazioa eta DBHko 4. mailako ikasleen irteera-profilaren ebaluazioa bat etorrarazi dira,

EAEko hezkuntza-sistema ordezkatzeko hautatutako ikastetxeen lagina berbera izan dadin, halako moldez non bi ebaluazioak alderatzeko elementuak izango baititu.

Hobetu beharreko arloak:

- ✓ Ikastetxeen barneko eta kanpoko ebaluazioen planteamendu osagarrian aurrera egitea.
- ✓ Barneko ebaluazioko probetan itemen ereduak txertatzea, erronka dakarten egoerei irtenbidea emateko.
- ✓ EPEko probetan, irakasleen gaitasun-profilaren ezaugarriekin lotutako elementuak txertatzea.
- ✓ Kanpotik ebaluatutako gaitasunetako hasierako mailetan dauden ikasleen ehunekoa jaistea.

HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L5.1.- Ikastetxeetako irakasleekin lankidetzan aritzea, oinarrizko gaitasun guztien barneko eta kanpoko ebaluazioa egin dezaten, hala zeharkakoena nola diziplina barrukoena, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat etorriz.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte hasierako ebazpenek adierazten dutenez, kanpoko eta barneko ebaluazioen emaitzak alderatu behar dira eta, azterketa horretatik abiatuta, hobetzeko proposamenak eta irakasleak prestatzeko prozesuak sortu behar dira. Ikastetxeei prestakuntza emateko saioak egin dira eta «arazo-egoera» deskribatzen duen eredua eta arlo, irakasgai eta etapa bakoitzerako arazo-egoeren proposamenak zabaldu dira Hezkuntza webgunearen bidez. Zeharkako gaitasunen eta diziplina barrukoen garapenari buruzko orientabide didaktiko eta metodologikoak eta ebaluazioaren ingurukoak garatu dira. Irakasleek prestakuntza emateko moduluak prestatu dira, hausnarketa partekatua izaten eta ikastetxeetan oinarrizko gaitasunak gara daitezen laguntzeko. (Esparru orokorra, irakurtzeko gaitasuna, matematikarako gaitasuna). Baliabide sorta bat garatu da (irakasleentzako ikasmateriala eta hausnarketarako materiala), oinarrizko gaitasunen garapenarekin lotua. Ikasturte eta etapa bakoitzaren amaierako ebaluazioaren akta-eredua aldatu da, kontuan hartuta ikasleek beren irteera-profilari dagokionez hartutako gaitasunekin lotutako prestakuntzako eta ziurtapeneko alderdiak.	L5.1.1 Ikastetxe publiko guztiei prestakuntza eman zaie, Prestakuntzako Ekimen Globalaren bidez, gaitasunak ebaluatzeko esparru orokorraren garabidean. L5.1.2 Ikastetxeetan tresna digital bat zabaldu da, gaitasunen araberako ebaluazioa errazteko. L5.1.3 Ebaluatzeko tresna digitala erabiltzeko interesa duten ikastetxeei prestakuntza eman zaie. L5.1.4 Eskuragarri jarri da itemak, estimuluak eta ebaluazio-probak dituen banku bat, gaitasunen arabera, hezkuntza-maila guztientzat (Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 6. mailak eta DBHko 2. eta 4. mailak).

L5.2.- Ikastetxeekin batera, etapa bakoitzaren erdian, prestakuntzako diagnostiko-ebaluazioak planifikatu eta antolatzea, barne-hausnarketa pizteko eta etengabeko hobekuntzako prozesuei laguntzeko, ikastetxe bakoitzeko hobekuntza-planak eguneratuz eta beharrezko indartze-neurriak hartuz.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak), ikastetxeekin elkarlanean, Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.). ISEI-IVEI erakundeak, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoen eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailakoen 2016-2017 ikasturteko diagnostiko-ebaluazioari dagozkion txostenak bidali dizkie ikastetxeei. Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.) 2019ko diagnostiko-ebaluazioei dagokienez. Ikastetxeek oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioak egin dituzte Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapen erdian, Saileko zerbitzuek emandako irizpide eta ereduen arabera.	L5.2.1 Ikastetxeek oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioak egin dituzte Lehen Hezkuntzako etaparen erdian, Saileko zerbitzuek emandako irizpide eta ereduen arabera, eta aldian-aldian beren hobekuntza-planak eguneratu dituzte, etapa erdiko barne- eta kanpo-ebaluazioak batera aztertuta. L5.2.2 Ikastetxeek oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioak egin dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etaparen erdian, Saileko zerbitzuek emandako irizpide eta ereduen arabera, eta aldian-aldian beren hobekuntza-planak eguneratu dituzte, etapa erdiko barne- eta kanpo-ebaluazioak batera aztertuta.

L5.3.- Etapa amaierako kanpoko ebaluazio diagnostikoa egitea, egiaztatzeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleek zer neurritan eskuratu dituzten irteera-profilean aurreikusitako oinarrizko gaitasunak, informazioa eta datu objektiboak emango dituen ebaluazio-sistema zorrotz, fidagarri eta jarraitua izateko, EAEko hezkuntza-sistema hobetzen lagunduko duten erabakiak hartze aldera.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
ISEI-IVEI erakundeak, ikuskaritzak eta Berritzeguneek esparru teorikoa, estimuluak, ebaluazio-itemak eta -koadernoak, zuzenketa-irizpideak eta txosten-ereduak diseinatu dituzte, Lehen Hezkuntzako 6. mailarako eta DBHko 4. mailarako, 236/2015 Dekretuan ezarritako ikasleen irteera-profilaren arabera. Sailak kanpoko diagnostiko-ebaluazioak egin ditu Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 4. mailan, ikastetxeen lagin batean, hizkuntza-ereduaren eta titulartasunaren arabera geruzatuta, jakiteko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleek zer neurritan lortu dituzten irteera-profilaren arabera dagozkien gaitasunak eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzen lagunduko duten erabakiak hartzeko.	L5.3.1 Ikastetxeen lagin adierazgarri batek kanpoko diagnostiko-ebaluazioak egin ditu Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 4. mailan, 2018 eta 2020 ekitaldietan, jakiteko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleek zer neurritan lortu dituzten irteera-profilaren arabera dagozkien gaitasunak eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzen lagunduko duten erabakiak hartzeko, eta hezkuntza-sistemari buruzko datu orokorrak lortzeko, etaparen erdiko eta nazioarteko PISA 2018 ebaluazioko datuekin aldera daitezkeenak, betiere. L5.3.2.- Hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa % 15 baino gutxiago da zientziarako gaitasunean, matematikarako gaitasunean, eta gaztelaniaz eta ingelesez komunikatzeko gaitasunean. L5.3.3.- Hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa % 30 baino gutxiago da euskaraz komunikatzeko gaitasunean, Lehen Hezkuntza eta DBH amaitzean.

L5.4.- Nazioarteko ebaluazioetan parte hartzea, EAEko hezkuntza-sistemarekin behar bezala egokituta, datu alderagarriak izateko ikasleen emaitzei buruz eta, hala, beharrezko hobekuntza-planak egin eta indartze-neurriak hartzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
ISEI-IVEI erakundeak emaitzen txostenak bidali dizkie 2015eko PISA for schools probaren saio pilotuan parte hartu duten ikastetxe guztiei. EAEk beste herrialde eta erkidego batzuekin alderatzeko datuak ditu, 15 urteko ikasleen zientziarako, irakurtzeko eta matematikarako gaitasunen ebaluazioari buruz. 50 ikastetxeko laginarekin parte hartu da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen irakurtzeko gaitasunari buruzko nazioarteko PIRLS 2016 ebaluazioan.	L5.4.1. 2018ko PISA ebaluazioan, gaitasun guztietako beheko mailan dauden ikasleen ehunekoa 3 puntu jaitsi da. L5.4.2. PISA 2021 euskaraz ere egingo dela bermatzeko jarduera guztiak gauzatu dira.

L5.5.- Irakasleen gaitasunen mapa zehaztea, dauden ikerketetatik eta curriculumaren garapenari buruzko Dekretuan ezarritako irteera-profiletik abiatuta, eredua izan dadin irakasleak ebaluatzeko prozesuetan.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Irakasleen profila zehaztu da (gaitasunak, dimentsioak eta irizpideak) eta behaketarako eta ebidentziak jasotzeko zerrendak prestatu dira. Irakasleen gaitasunen profila irakasleei banatu zaie EAEko hezkuntza-sisteman sartzen diren irakasleentzako gidaren bidez, eta ikastetxe guztien eskura jarri da Sailaren web-orriaren biez; halaber, praktiketan dauden irakasleak dituzten ikastetxeei eman zaie.	L5.5.1. Irakasleen gaitasunen mapa zehaztuta dago ikasleen irteera-profiletik abiatuta eta eredutzat hartzen da EPEn eta ordezkari-zerrendetan sartzeko hautaketa-prozesuetan. L5.5.2. Irakasleen eskura jarri da hezkuntza-sisteman sartuko diren langileentzako irakaskuntzako gida. L5.5.3. Irakaslearen profilean oinarritutako gaitasun-mapa erabiltzen da irakasleak ebaluatzeko prozesuetan: praktiketako irakasleak eta irakasleen gaitasunen ebaluazioa. L5.5.4. Ikastetxeetan karpeta bat banatu da, zeinetan irakasleen profil profesionalarekin eta irakaskuntzarekin lotutako zenbait alderdiri buruzko dokumentazioa jasotzen den, practicumeko ikasleentzat. L5.5.5.- Sisteman sartu beharreko irakasle berrien beharra planifikatu da, bai eta irakasleen ordezkapena planifikatzeko proposamen eta irtenbide berriak eman ere.

L5.6.- Irakasleen ibilbide profesionala finkatzea, erreferentziatzat hartuta irakasleen gaitasun-mapa, irakasleei hobetzen laguntzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Irakasleen profila diseinatu da, erreferentziatzat hartuta ikasleen irteera-profila bermatzeko beharrezko gaitasun profesionalak. Aldaketak egin dira irakasleen EPEren deialdian, ikasgelako irakaskuntzako jardunbidearen alderdi espezifikoak proposatzen diren kasu praktikoari dagokionez. Halaber, curriculumari buruzko indarreko dekretuetan sustatutako irakasle-profilari egokitutako ebaluazio-irizpideak txertatu dira. Bestalde, irakasleek beren jardunbidea ezarritako gaitasun-profilaren arabera ebaluatzeko erabil dezaketen tresna bat argitaratu da Sailaren web-orrian.	L5.6.1. Irakasleen jardunbidea ebaluatzeko prozesuak egin dira arlo hauetan: praktiketan dauden funtzionarioak, irakaskuntzako gaitasuna, irakasleen profilean ezarritako gaitasun profesionaletatik abiatuta.

L5.7.- Hezkuntza-sistema ebaluatzea datu objektiboak (konparatiboak) izateko eta ikerketak egitea, erabakiak hartzeko eta sistema hobetzeko.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
1. Hezkuntza-sistema hobetzeko 2016ko Planaren jarraipena egin da, aurkeztu zenetik bi ikasturte geroago, kontuan hartuta proposatutako helburu eta adierazleak eta egindako ebaluazioen eta Hezkuntza Sailean argitaratutako erregistro ofizialen bidez lortutako datu objektiboak. 2. Emaitza baxuak eta balio erantsi txikiagoa duten ikastetxeak sakonago ikertu eta ebaluatu dira, horiek aldatzea baita lehentasuna, emaitzetan aurrera egin nahi bada. 3. Ikasleen ebaluazioaren eremuak zabaldu dira, pixkanaka oinarrizko gaitasun guztietara hedatuz. 4. Ikuskaritzak irakasleen eta zuzendaritza-taldeen ebaluazioa gauzatzeko Europako proiektuan parte hartu du.	L5.7.1.- Hobekuntza Planaren ildo estrategikoen helburuak ebaluatu dira, eta hezkuntza-sistema hobetzeko erabakiak hartzean, kontuan hartu dira EAEko hezkuntza-sisteman gauzatzen diren ikerketa eta ebaluazioetan lortu ohi diren datu objektiboak. L5.7.2.- Irakasleen eta zuzendaritza-taldeen ebaluazioa Europako ERASMUS + proiektuan garatutako ereduaren arabera egiten da.

Egiturazko adierazleak (%)

Adierazleak	2020-21
Eskola-uzte goiztiarraren tasa (EUSTAT)	**< 10**
DBHko graduatu-titulua lortu duten ikasleak	**> 90**
Egokitasun-tasa (errepikatu ez dutenen %)	**> 80**

PISAren arabera, gaitasunen hobekuntza-mailaren adierazleak (%)

PISA	2021	
	Beheko maila	Maila bikaina
Irakurriaren ulermena	**< 15**	**> 10**
Matematika	**< 15**	**> 10**
Zientziak	**< 15**	**> 10**

Oinarrizko gaitasunen hobekuntza-mailaren adierazleak, ikasleen irteera-profilaren arabera, ebaluatzeko berezko ereduaren bidez (%)

Oinarrizko diziplina-gaitasunak	2020 ED.			
	LEHEN HEZKUNTZA		BIGARREN HEZKUNTZA	
	Hasierakoa	Aurreratua	Hasierakoa	Aurreratua
Hizkuntza eta literatura: euskara	20-30	20-30	20-30	> 30
Hizkuntza eta literatura: gaztelania	< 20	> 30	< 20	> 30
Hizkuntza eta literatura: ingelesa	20-30	20-30	< 20	20-30
Matematika	< 20	> 30	< 20	> 30
Zientifikoa	20-30	20-30	20-30	20-30
Soziala eta zibikoa	< 20	> 30	< 20	20-30
Artistikoa	< 20	> 30	< 20	> 30
Teknologikoa	< 20	> 30	< 20	> 30
Motrizitatea	< 20	> 30	< 20	> 30

2.6.- IKASTETXE PUBLIKOEN AUTONOMIAN SAKONTZEA (L6)

Sare publikoko ikastetxeen autonomia-mailak aurrera egin du autonomia pedagogikoaren arloan, klaustroko kideek eta ordezkaritza-organo gorenek baterako irizpide metodologiko, proiektu eta lehentasunei buruz hartutako erabakien bidez, eta denborarekin finkatu egin diren ezaugarri-bereizgarriak ezarri dira, horrela, sarritan. Alabaina, baliabide material, ekonomiko eta funtzionalak kudeatzeko eta langileak kudeatzeko autonomia ez da maila berean garatu.

Gero eta ohikoagoa da ikastetxe publikoetako zuzendaritzek autonomia handiagoa eskatzea arlo horietan; izan ere, haien ustez, autonomia handiago izanez, eraginkortasun handiagoa lortzen dute beren proposamen pedagogikoetan eta, azken finean, ikastetxeko ikasleekin egiten duten esku-hartzean.

Diagnostikoa:

2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxek Hauspoa proiektuan parte hartzeko aukera izan zuten. Esperientzia hori benetako eredua da ikastetxeen autonomian sakontzeko.

Hauspoa proiektuaren helburua da hezkuntza-administrazioak berrikuntza-prozesuak sustatu ditzan, irakaskuntzako eta antolaketako jardunbideak hobetzeko eta, hala, hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzeko. Berrikuntza-proiektua eskatzen duten ikastetxeek, eskabidearekin batera, zenbait arlotan aldaketak egiteko proposamenak egiten dituzte, esaterako, eskola-denboren kudeaketari eta guneen eta baliabide materialen eta giza baliabideen antolaketari dagokienez. Nabarmendu behar da azken urteotan gero eta ikastetxe gehiagok egiten dutela proiektu horretan parte hartzeko eskabidea, eta 2018-2019 ikasturtean 62 ikastetxera heldu gara EAEn.

Hamaika Esku programan parte hartu duten ikastetxeek aukera izan dute garatu nahi zuten proiektuaren arabera hautatutako langileak izateko. Ekimena Haur eta Lehen Hezkuntzako eta DBHko 63 ikastetxetan gauzatzen ari dira, testuinguru konplexuetan. Langileen kudeaketaren eta antolaketaren autonomia indartzen ari dira proiektuotan.

Bestalde, Kalitatea Hezkuntzan sarean bildutako ikastetxe publikoak autoebaluazioko eta kanpoko ebaluazioko prozesuak gauzatzen ari dira. Prozedura hori euskal erakundeetan kudeaketa aurreratua sustatzen duen ereduaren barruan dago. Ikastetxeak kudeatzeko ereduaren berrikuspena, bereziki irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozesuari dagokionez, antolaketako autonomian sakontzearen adibide da; berrikuspen horren bitartez, baterako hausnarketa eta sareko lana indartzen dira, hezkuntzako bikaintasuna lortzeko funtsezko elementuak, bi-biak.

2017-2018 ikasturtean, hezkuntza-premien indizea zehaztu da, «*ikastetxe bakoitzaren premia bereziak hobeto identifikatu eta hautemateko*» tresna modura, eta, hala, «*gero erantzun malguagoak eta egokituak emateko*».

Horrelako tresna bat erabilita, administrazioak neurriak diseina eta ezar ditzake, ekitatean oinarritutako eta bikaintasunera bideratutako sistemarako bidea errazteko. Neurriok ikastetxeen antolaketaren eta horniduraren hainbat alderdi har ditzakete barne, esaterako, berrikuntzako proiektuak gauzatzea, goi-mailako prestakuntza duten irakasleak sustatzeko eta erakartzeko neurriak hartzea, ikastetxeen egonkortasuna bultzatzeko neurriak hartzea, hezkuntza komunitatea sentikortzeko eta inplikatzeko ekimenak gauzatzea eta laguntzeko

baliabide gehigarriak ematea; alderdi horiek guztiak ikastetxeen antolaketa-autonomia erabiltzean oinarritzen dira.

Hobetu beharreko arloak

Kontuan hartuta diagnostikoari buruzko atalean emandako datuak, 2018-2020 aldirako hobekuntza-proposamen hauek lehenesten dira, guztiak metodologiaren eta curriculumaren arloko autonomia pedagogikoarekin eta langileen eta baliabideen kudeaketaren autonomiarekin lotuta, betiere.

1.- Ikastetxeen autonomia handitzea, beren hezkuntza-proiektuak hobeto garatzeko.

- Autonomia pedagogikoa, ikasleen ezaugarrietara eta ikastetxeen hezkuntza-plangintzetara egokitzen diren neurriak hartzeko. Hainbat arlotako neurriak: hezkuntza-eskaintza, ikasle taldeen antolaketa, curriculumeko jardueretako denboraren erabilera, guneen eta baliabide didaktikoen erabilera.
- Ikastetxearen hezkuntza-proiektura hobekien egokitzen den antolaketa-egitura ezartzeko autonomia, agindu batzuk errespetatuta.
- Kudeatzeko autonomia, zeinak ikastetxeei eta, zehazki, zuzendaritzei aukera ematen dien zenbait arlotan esku hartzeko, esaterako, ikastetxearen premietara egokitutako profila duten langileen ezaugarriak ezartzea. . Kudeaketako autonomiak, besteak beste, kudeaketa ekonomikoa eta ikastetxearen gizarte-erabileraren inguruan erabakitzeko gaitasuna ere ekarriko lituzke.

2.- Ikastetxeko proiektua eta erantzunkidetasun-akordioak, autonomian sakontzeko funtsezko bitarteko modura.

- Erantzunkidetasun-akordioetan, ikastetxeek, ikastetxe-proiektuan jasotako hobekuntza-helburu espezifikoak betetzeko, administrazioarekiko hartutako konpromisoak zehazten dira. Eta bestetik, administrazioak ikastetxeen aurrean hartutakoak. Hala, administrazioak zein bitarteko eta laguntza emango dituen zehaztuko da, ikastetxeek plan horiek ezarri eta aurreikusitako emaitzak lor ditzaten.

- Administrazioak erantzunkidetasun-akordioak garatzea lehenetsiko du ingurune ahuletako ikastetxe publikoetan, autonomia garatzeko zailtasun handiagoak dituztenetan. Hala, ikastetxe-proiektu sendoagoak izango dituzte, eta erantzun egokiagoak eman ahalko dizkiete ikasleei eta hezkuntza-komunitateari.
- Halaber, erantzunkidetasun-akordio espezifikoak adostu ahal izango dira funts publikoz finantzatutako ikastetxe pribatuekin, baldin eta administrazioak interes sozialekotzat jotzen baditu, horien hezkuntza-proiektuaren berezitasunak direla eta.
- Erantzunkidetasun-akordio horien bitartez egituratzen den autonomia-garapenak laguntza eta ikuskapen handiagoak izango ditu administrazioaren aldetik, eta horretarako egituraren bat ezar daiteke, kudeaketa errazteko.
- Ebaluazio-mekanismoak eta kontuak ematekoak ezartzea ikastetxeetan, administrazioan eta, oro har, hezkuntza-komunitatean. Hezkuntza-sistemak erronka handiak dituenez, ezinbestekoa zaio informazio publikoa eta gardena jasotzea ikastetxeetatik, haiei emandako baliabideak nola erabiltzen diren jakiteko, bai eta

haiekin lortutako emaitzak baloratzeko ere, kontuan hartuz inguruko gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta hizkuntzaren eragina.

3.- Eskolako lidergoa eta erantzunkidetasunaren kultura, autonomia garatzeko funtsezko zutabe modura; beharrezkoa izango da:

- langileen eta baliabideen kudeaketan aurrera egitea, ikastetxeen proiektuen arabera, lortu nahi diren helburu eta emaitzen arabera.

- profilak zehazten eta irakasleen plazak hautatzen aurrera egitea.

4.- Hezkuntza-komunitatea zuzendaritzaren proiektuan inplikatzea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren autonomia gauzatzen dela bermatzeko.

- Hezkuntza-komunitateak konpromisoa hartzea ikastetxeko zuzendaritza-proiektuaren garapenean eta hezkuntzako ikuskaritzak egindako jarraipenetik sortutako hobekuntza-proposamenetan.

HELBURUAK ETA LORPEN-ADIERAZLEAK

L6.1.- Proiektua sortu, ezarri eta ebaluatzea, ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko, haien helburuak, edukiak, betekizunak eta hautaketa- eta ebaluazio-prozedurak zehaztuz, ikastetxeei aukera emateko beren berrikuntza-proiektuak eraginkortasunez prestatu eta garatu ditzaten.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Ikastetxeek autonomian sakontzeko proiektuetan duten parte-hartzea handitu da: Hauspoa (62 ikastetxe), Hamaika Esku (63 ikastetxe). Lau urterako, zuzendaritza-proiektua duten zuzendarien % 62 hautatu da.	L6.1.1 Ikastetxeek autonomian sakontzeko proiektuetan duten parte-hartzea handitu da: Hauspoa eta Hamaika Esku proiektuetan, % 20 gehiago. L6.1.2 Hautatutako zuzendaritza-taldeen proiektuen % 95 finkatu da. L6.1.3 Autonomian sakontzeko proiektuak gauzatu dira hezkuntza-premien indizearekin lotuta baliabideak jaso dituzten ikastetxeen esparruan.

L6.2.- Beharrezko bitartekoak ezartzea, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak aukera izan dezan autonomiaz, elkarrekin eta modu eraginkorrean zuzentzeko, garapenarekin eta bere ikastetxearen hezkuntza-proiektua hobetzearekin lotutako erabakiak hartzean, planifikatzean eta kudeatzean.	
ABIAPUNTUKO EGOERA	**LORPEN-ADIERAZLEAK**
2016-2017 / 2017-2018	**2019-2020**
Zuzendariak hautatzeko Dekretuaren aldaketan, zenbait aldakuntza txertatu dira, ikastetxeen autonomiaren garapen-ildoen proposamenak ebaluatzeko. Ikastetxeetako zuzendaritzek zuzendaritza berriak hautatzeko prozesuan esku hartu dute, hautaketako batzordeetan parte hartuta. Kalitatea Hezkuntzan sareko ikastetxeen partaidetzarekin, ikastetxeentzako autoebaluazio-	L6.2.1 Aldaketak egin dira ikastetxeetako zuzendarien hautaketa arautzen duen dekretuan, ikastetxeen autonomian sakonduko duten estrategia-ildoak sartzea balioztatzeko. L6.2.2 Kudeaketa aurreratuko eredua zabaldu da Kalitatea Hezkuntzan sareko 62 ikastetxeetan. L6.2.3 Hezkuntza-premien indizearekin lotuta baliabideak jaso dituzten ikastetxeen zuzendaritza-taldeek proiektuak gauzatu dituzte

eredu bat diseinatu da. Sareko 21 ikastetxek egin dute eredua ezartzeko tresnen proba pilotua. Hamaika Esku programako ikastetxeetan, zuzendaritzek esku hartu dute haien hezkuntza-proiektuak sustatzen lagunduko duten pertsonak hautatzen eta ebaluatzen.	esleitutako ezohiko baliabideak modu eraginkorrean kudeatzean autonomia izateko. L6.2.4.- Ekimen berritzaileak gauzatu dira, ikastetxeak autonomia gehiago izanda, ikasleek, familiek eta ingurune hurbilenak (auzoa, herria, etab.) ikastetxearen proiektuan parte hartu ahal izan dezaten, horretarako bidea emanez. L6.2.5.- Erantzunkidetasuneko hitzarmenak egin dira ikastetxeekin.

Euskal Hezkuntza Sistemaren Hobekuntza Planaren Aurrerapena

L1.1.- Hasierako prestakuntza irakasleei beharrezkoa den profil konpetentziala erdiestera bideratzea, ikasleek irteera-profilean ezarritako konpetentziak eskuratu ditzaten

2015-16	*2017-18*
Lantalde iraunkorra sortu da Hezkuntza Sailburuordetzaren eta Unibertsitate eta Politika Zientifikoko Sailburuordetzaren artean, irakasleen hasierako prestakuntzari eta irakasleen praktikei buruzko lorpen-adierazleak aztertu eta adosteko, ikasleen irteera-profilaren arabera.	Lantalde bat eratu da Hezkuntza Sailburuordetzaren eta Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren artean, ikastetxeetan practicuma garatzeko lehentasunezko alderdiak aztertu eta adosteko. Martxoaren 6ko 33/2018 DEKRETUA irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari buruzkoa argitaratuta, Hezkuntza Sailak kalitate handiko hasierako prestakuntza zorrotza eskaini nahi izan die etorkizuneko irakasleei, EAEko hezkuntza-sistemaren funtzionamendu ona eta kalitatea bermatzeko. Era berean, jardunbide egokiak dituzten hezkuntza-zentroen parte-hartzea eta hezkuntza-berrikuntza eta -esperimentazioarekin konprometitutako irakasle eskarmentudunen lankidetza bultzatu nahi ditu. Horrez gain, egiteko horri merezi duen aintzatespena eman nahi dio. Practicumari buruzko Dekretua garatzeko koordinazioa sustatu da honako hauen artean: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza, Ikuskaritza Nagusia, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritza, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza eta EAEko unibertsitate-ordezkariak.

L1.2- Irakasleek beharrezkoa duten profil konpetentziala eguneratu eta egiaztatzera bideratzea etengabeko prestakuntza, ikasleek irteera-profilean ezarritako konpetentziak eskuratzea ahalbidetzeko, Prest Gara Planaren bidez; konpetentzia horiek Oinarrizko Hezkuntzari buruzko Dekretuan ezartzen dira.

2015-16	*2017-18*
Administrazioak eta ikastetxeek ikasleen irteera-profileko konpetentziak aztertu dituzte. Irakasleen konpetentzia-profileko konpetentziak, prestakuntza-jarduera bakoitzean sustatu nahi direnak, aztertu dira. Prestakuntza-jarduerak bi ikuspegiren arabera bildu dira: irakasleen konpetentziak, prestakuntzaren bidez nabarmendu nahi direnak, eta ikasleen irteera-profileko konpetentziak, prestakuntza-jardueraren edukiaren oinarrian daudenak. Ikastetxearen urteko planean irakasleak eta hezkuntza-komunitatea prestatzeko plana gehitu da, bai eta hobekuntza-planean zehaztutako helburuak ere.	**Prestakuntza Ekimen Global** bat proposatu die Hezkuntza Sailak Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eskolak ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei, 2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan garatu dezaten. Eskola-jazarpenari aurre egin eta bizikidetza positiboa sustatzeko **Bizikasi** ekimenaren barruan, hainbat prestakuntza-ekintza abiarazi dira hezkuntza-arloko eragile guztientzat. **Irakurketa Plana** hezkuntza-komunitatearen eskura jarri den laguntza- eta babes-baliabidea da. Ekimen horren helburua da, hain zuzen, gure ikasleen irakurmena hobetzea eta irakurzaletasuna bultzatzea. Webgune bat egin da (Irakurgunea) ekimenaren euskarri gisa, eta Eleaniztasunerantz deialdian neurriak txertatu dira Irakurketa Planaren proposamenak ikastetxe guztietara zabaltzeko. Hezkuntza Sailak **STEAM** ekimena sustatu du irakasleen eta ikastetxeen artean. Besteak beste, nabarmentzekoa da STEAM arloetako (Science, Technology, Engineering, Art & Maths) berrikuntza-proiektuak sortu eta garatzeko deialdia. Horren harira, Prestakuntza Ekimen Globalak ere bere egin du STEAM planteamendua, eta prestakuntza-edukietan txertatu du. **PREST_GARA** Irakasleen **Prestakuntza** Planaren aplikazioa aldatu egin da,

	ikastaroak irakasleen profil konpetentziala eta ikasleen irteera-profila lortzeko diseinatuta eta garatuta daudela ziurtatzeko. Prest Gara planak eta Berritzeguneek eskaintzen dituzten prestakuntza-ekintza guztiak bildu eta horiek sustatzeko, irakasleen prestakuntzarako plataforma birtuala sortu da, egunero eguneratzen den prestakuntza-eskaintza guztia biltze aldera. **Haur Hezkuntzarako** ikasmaterial espezifikoak egin dira irakasleentzat, eta etapa horretako gai nagusiei buruzko jardunaldiak antolatu dira. Irakasleentzako Gida egin da, praktiketan dauden irakasleei begira. Ikastetxearen urteko planean, barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzei lotutako hobekuntza-ekintzez gain, irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntza-plana ere sartu da, baita Hobekuntza Planean eta Prestakuntza Ekimen Globalaren plangintzan zehaztutako helburuak ere.

L 1.3 Hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza eskaini dira, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak ikastetxeen etengabeko hobekuntzaren buru izan daitezen.

2015-16	*2017-18*
Zuzendaritza-taldeen (zuzendaritza, ikasketa-burutza eta idazkaritza) funtzioa gauzatzeko beharrezkoa den konpetentzia-profila prestatu da. Zuzendaritza-taldeen (zuzendaritza, ikasketa-burutza eta idazkaritza) funtzioak gauzatzeko beharrezkoak diren konpetentziak garatzera bideratutako hasierako prestakuntza eta prestakuntza iraunkorra planifikatu dira.	2017-2018 ikasturtean hasierako prestakuntza eskaini zaie salbuespen gisa ikastaro horretarako izendatutako zuzendariei; ikastaroak 40 orduko iraupena izan du. 106 zuzendarik parte hartu dute prestakuntza-deialdi honetan. Partekatuz Ikasi modalitateak zuzendaritza-eginkizunekin lotutako 6 jardunbide egoki eskaini ditu. Era berean, prestakuntza-ikastaro bat antolatu da EHUko udako ikastaroen barruan.

L1.4 Esperientzian eta jardunbide egokietan oinarritzen den berdinen arteko prestakuntza sustatzea, ikasgelan irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak ikertu eta horiek hobetzeko helburuarekin.

2015-2016	*2017-2018*
Ikastetxeek bikaintasuna lortzeko hezkuntza-berrikuntzako proiektuen eta Partekatuz ikasi modalitatearen deialdietan duten partaidetza % 10 handitu da. Hedapen-jardunaldiak egin dira, ikastaroen jardunbide egokien inguruan. Praktiketan dituzten ikasleen harrerari buruzko jardunbide egokiak eta berrikuntza-proiektu integralak gauzatzen dituzten ikastetxeen jarraipena egin da. Agindu bat argitaratu da, ikastetxeetan irakasteko prestatzen ari diren ikasleek gauzatzen dituzten praktiken zenbait alderdi arautzeko; bestalde, praktiketan dituzten ikasleen harrerari buruzko jardunbide egokiak eta berrikuntza-	Antolatu diren prestakuntza-jardunaldietan ikastetxeetako esperientziak eta jardunbide egokiak ezagutarazi dira. «Partekatuz Ikasi» modalitatean, praktika berriak gehitu zaizkio eskaintzari: Haur Hezkuntza eta zuzendari berrien tutorizazioa. Argitaratu den Practicumari buruzko Dekretuak garapen profesional ona eta irakaskuntza-jardun egokia duten ikastetxeek praktikaldian dauden ikasleak har ditzaten sustatzen du. Ikastetxe-sareetako lana sustatu da, ikastetxeen kudeaketa aurreratuari, metodologia aktibo eta parte hartzekoen ezarpenari eta ikastetxeetan hezkuntza-

proiektu integralak gauzatzen dituzten ikastetxeen jarraipena ere egin da.	komunitatearen parte-hartzeari lotutako lehentasunak kontuan hartuz.

L1.5 Familien eta irakasleak ez diren langileen partaidetza sustatzea hausnarketa-prozesuetan eta prestakuntza-jardueretan, irakasleekin batera elkarlanean aritu daitezen, ikasleen irteera-profila lortzeko eta ekarpenak egin ditzaten ikastetxea hobetzeko.

2015-2016	***2017-2018***
Prestakuntzarekin lotutako deialdiak idatzi dira, familiek parte hartzeko prestakuntza-jarduerak jasotzeko. Hezkuntza-komunitateari zabaldutako jardunaldiak egin dira hezkidetzari eta aniztasunaren trataerari buruz. Irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen prestakuntzan lan egiten duten Laguntza Zerbitzuak gauzatzen dituzten zereginak identifikatu eta aztertu dira.	Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzako laguntza-deialdiek hezkuntza-sistemaren hobekuntza-planeko ildo estrategikoei lotutako prestakuntza sustatzen dute, eta, zehazki, irakurtzeko ohitura sustatzeari lotutako eta euskararen erabilerarekin zerikusia duen prestakuntza.

L2.1.- Jatorria, etnia, generoa, kultura, sexu-joera edo genero-identitatea oinarri duen diskriminaziorik gabeko eskolatzea bermatzea ikasleak onartzean eta dibertsitate funtzionalaren edo beste edozein dibertsitateren harrera, iragatea eta arreta hobetzea, integrazio eta kohesio sozial handiagoa lortzeko

2015-2016	***2017-2018***
Ikasleak onartzeko prozesuaren eta eskolatze-batzordeen irizpideak berrikusi dira eta ikastetxeek horiekiko duten betetze-maila ebaluatu da. Absentismoaren, eskola-uzte goiztiarraren, eskola-porrotaren eta errepikapenaren tasak berrikusi eta hobetzeko proposamenak egin dira. Eskolan berandu sartu diren ikasleak eskolatu dira, dauden sareen arteko oreka mantenduz. Eskolan berandu sartu diren ikasleen jarraipena planifikatu da, haien bigarren eskolatze-urtean. Tokiko eta tokiz gaindiko beste erakundeekiko harremanak sakondu eta zabaldu dira, absentismoa prebenitzeko eta gizarte-kohesio handiagoa bermatzeko. Ebidentzia zientifikoko irizpideak betetzen dituzten jardunbide egoki inklusiboen inbentarioa egin da. Jolastokiak, jangelak eta eskolako beste gune eta aldi batzuk (gune birtualak barne) erabiltzeko jardunbide inklusibo eta seguruak aztertu dira eta irizpide ez-baztertzaileak proposatu dira. Ikasle etorkinen hezkuntza-arretarako, ikasle ijitoen eskolatzearen hobekuntzarako, gaitasun handiko ikasleekiko hezkuntza-jarduketetarako, hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako planak ebaluatu dira.	Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana prestatzen ari dira eta hiru hilean behin egiten da ekintza-ildoen jarraipena eta ebaluazioa. Txosten bat aurkeztu da berriki ikasle etorkinek hiru lurraldeetan duten eskolatzeari buruz, eta aipatutako II. Planean jasotako neurrien osagarriak diren jarduerak jaso dira bertan. 2018-2019 ikasturteko matrikulazioa 2018ko urtarrilean onarpenari buruz argitaratutako dekretu berriaren arabera gauzatu da. Materialak eta orientabideak eman zaizkie ikastetxeei, berariazko programak presta ditzaten absentismoko, eskola-uzte goiztiarreko, eskola-porroteko eta errepikatzeko arazoak dituzten ikasleei banakako arreta emateko. Ikasturtean eskolatutako ikasleen datuen erregistroak hobetu dira, eskolatze-batzordeek esleitutako ikastetxeetako iraunkortasun-tasen jarraipena egiteko. Larrialdiko proposamenak egin dira bakarrik dauden adingabe atzerritarrak diren ikasleen eskolatzerako, eta berariazko ekimenak jarri dira martxan Helduen Hezkuntzan, sare publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eskolatu berri diren ikasleen gurasoekin.

Hurrengo urteetarako plan berriak egiteko proposamen egin dira.	

L2.2.- Absentismoari, eskola-uzte goiztiarrari, eskola-porrotari, aniztasunarekiko arretari edo edozein bazterkeria motari buruz prebenitzea eta ahalik eta lasterren jardutea, baliabideak eraginkortasunez erabiliz, ikasle guztien onura lortzeko

2015-2016	*2017-2018*
Irisgarritasun kognitiboa ebaluatzeko azterketa bat egin da, estrategia inklusiboak ezartzen lagundu dezaketen antolakuntzako alderdiak aldatzeko. Ikastetxeetan diskriminazioa sor dezaketen egoeren errealitatea balioesteko azterketa egin da, eta jarduera-protokoloa zabaldu da bizikidetza-plana duten ikastetxe guztietara. Azterketa bat egin da, ikusteko zer baliabide behar dituzten, profil sozioekonomiko baxuagoa izanik, gizarteko edo hezkuntzako bazterkeria izateko arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeek, ikasleen irteera-profileko konpetentziak lortze aldera. Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloaren lehenengo faseko (Garapenaren Ohiko Zaintza, 2 eta 3 urte) prestakuntza-prozesuetan irakasleen % 95ek hartu du parte. Haur Hezkuntzan (2-3 urte) garapen arazoak dituzten edo halakorik izateko susmoa dagoen ikasleen hautematea hobetu da, kasuen % 95ean. Garapenaren zaintzako eta jarraipeneko prozesuak gauzatzeko lantalde bat jarri da martxan, arreta goiztiarreko ereduari jarraikiz, baina Lehen Hezkuntzako ikasleen eta Haur Hezkuntzako etapako ezaugarrietara egokituta. Gida bat dago, ikastetxeetan aniztasunari	Bizikasi ekimenaren talde sustatzaileak honako hauei eman die prestakuntza: - 1.036 irakasleri, tresnak izan ditzaten, pertsonen arteko harremanak diagnostikatzeko eta ondoez sozioemozionala, bazterkeria eta eskola barruko jazarpeneko egoerak behatzeko eta hautemateko. - Berritzeguneetako aholkularitza guztiei eta hezkuntzako ikuskaritzari. - tutoretzako materialak diseinatu ditu, ekimenaren esparruan. Bizikasi taldeak prestakuntza ematen jarraitzen du, zuzendaritza berriei, BAT taldeei, Berritzeguneetako aholkularitzei eta ikuskaritzari. Hezkuntzako Ikuskaritzak eta Berritzeguneetako aholkularitzek koordinatuta jarduten dute, ekimen honekin lotutako esku-hartzean. Profil sozioekonomiko baxuagoa izanik, gizarteko edo hezkuntzako bazterkeria izateko arriskuan dauden ikasleak dituzten ikastetxeei baliabideak eman zaizkie, jatorriko gabeziak orekatzeko eta curriculumean ezarritako konpetentzien garapen-mailak lortzeko. **Hamaika Esku** programaren bigarren fasea abiarazi da. 10 ikastetxe berri batu dira. Hezkidetzako I. Planaren jarraipena egin da. EAEko hezkuntza-sisteman, berdintasunean eta genero-indarkeriaren

erantzuna emateko.	prebentzioan heztea, aurreikusitako batzordeetan, eta Jarraipen eta Garapen Batzordeari jakinaraztea, hiruhileko txosten bidez, premiei eta itxaropenari buruzko informazioa, bai eta Planak jarduera-esparruan egindako jarduketen jarraipenari buruzkoa ere. Hezkidetzako II. Ekintza Planaren («Euskal hezkuntza-sisteman hezkidetzan eta genero-indarkeriaren prebentzioan oinarrituta heztea») zirriborroa prestatu da. Hala 2016-2017 nola 2017-2018 ikasturteetan, deialdiak egin dira hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentziorako plana diseinatzeko. Irakasleek «Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko» protokoloa daukate. **Bikaintasunerantz** deialdiaren bidez: - **Partekatuz Ikasi** modalitatean, jardunbide egoki inklusiboak hautematea sustatzen jarraitu da. - **Curriculuma Aberastea** modalitatean, urtero, proiektua eskaintzen zaie 10 ikastetxeri.

L2.3.- Gero eta komunitate inklusiboagoak lortzea, inklusioko eta partaidetzako prozesuak indartuz, hala familiei, irakasleei eta ikasleei nola hezkuntzako, gizarteko eta osasun-arloko eragileei dagokienez; halaber, ikastetxeen eta sareen arteko komunikazioa eta trukea sustatzea, ikasle guztiek ahalik eta gehien gara ditzaten beren konpetentziak.

2015-2016	*2017-2018*
Ikastetxeen % 10ek senideekin eta senideentzat gauzatzeko prestakuntza-jarduerak abiarazi ditu. EAEn Hezkuntza Sailarekin batera lan egiten duten taldeen katalogoa prestatu da. Sare bakoitzak bere sare-proiektua eta	Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa EAEko ikastetxe publikoetan aplikatzen da. Azterketa bat egin da, Hezkuntza-laguntzako Premia Espezifikoak dituzten ikasleei hezkuntza-mailan erantzuna emateko bitarteko pertsonal espezifikoak

ikastetxe-eredua berrikusi ditu, ildo estrategiko hau definitzen duten irizpideetatik abiatuta. Hezkuntza Bereziko langileen plaza jakin batzuk sortzeko beharrezkoa den prozesua abiarazi da (Hezkuntza Bereziko lanpostu-zerrendaren dekretu-proiektua).	nola erabiltzen eta esleitzen diren jakiteko. Era berean, lurralde guztietako ikastetxeen eta zonako Berritzeguneen artean eskuhartze-irizpideak bateratzeko prozedura bat ezarri da, Hezkuntza-laguntzako Premia Espezifikoei erantzuteko balioespen psikopedagogikoko prozesuei begira. Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleen autonomia eta irisgarritasuna garatzeko laguntzaren premia zehazteko Protokoloa eguneratu da eta zehaztu da bete egin behar dela jangelan eta garraioan, lan-plan bat diseinatzeko eta autonomia gartzeko helburuak zehazteko, hurrengo ikasturtean. Aurrera egin da osasun mentaleko arazoak dituzten Lehen Hezkuntzako ikasleekin egindako berariazko prozesu batean; dokumentu honetan dago jasota: «Osasun mentalari eta hezkuntzari buruzko dokumentu adostua». Irakasleei laguntzeko dokumentuak prestatu dira, curriculumerako irisgarritasuna hobetzeko entzuteko desgaitasuna, ikusteko desgaitasuna eta gaztaroko artritis idiopatikoa duten ikasleentzat, baita adoptatuentzat ere. Batzorde bat osatu da, arreta integratuko protokoloak diseinatzeko hezkuntza-etapen, eskolatze-modalitateen edo beste hezkuntza-, gizarte- edo osasun-sistema batzuen arteko trantsizioetarako. Dekretu berriaren prestaketa martxan da: «Hezkuntza inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko DEKRETUA, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat». *Hezkuntza inklusiboa garatzeko II. Planaren prestaketa martxan da.* *Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleei*

	zuzendutako II. jarduera-planaren garapena martxan da. Berariazko prestakuntza eman eta antolatu da, Hezkuntza Sistemako profesional espezifikoentzat: HPBetako aholkularitza eskualdeko Berritzeguneetan, entzuteko eta ikusteko desgaitasunak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko profesional espezifikoak, terapeuta okupazionalak, fisioterapeutak, zeinu-hizkuntzako interpreteak. Gainera, lurraldearteko irizpideak erabilita, hezkuntza-sistemako profesional espezifikoak koordinatu dira: Gorren koordinatzaileak, IBT-CRI zerbitzuko profesionalak, terapeuta okupazionalak.

L2.4 Gero eta komunitate inklusiboagoak lortzea, inklusioko eta partaidetzako prozesuak indartuz, hala familiei, irakasleei eta ikasleei nola hezkuntzako, gizarteko eta osasun-arloko eragileei dagokienez; halaber, ikastetxeen eta sareen arteko komunikazioa eta trukea sustatzea, ikasle guztiek ahalik eta gehien gara ditzaten beren konpetentziak.

2015-2016	*2017-2018*
	«Osasun mentalari eta hezkuntzari buruzko dokumentu adostua» argitaratu da. Lan-batzorde bat ezarri da Ospitaleetako eta Etxez Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Hezkuntza Arreta Terapeutikorako Zentroak ebaluatu eta eguneratzeko. Hezkuntza Saialak GaituzSport proiektua sustatu du, desgaitasunak dituzten ikasleek aktiboki parte har dezaten kirol-jardueretan, eskola inklusiboaren esparruan. Bilerak egin dira familia-elkarteekin, informazioa trukatu eta, hala, proposamen teknikoak egiteko, hezkuntzako laguntza premia bereziei

	hezkuntza-erantzun hobea emate aldera. Familien elkarlanerako eta partaidetzarako gida baten prestaketa martxan jarri da. Beharrizan bereziak dituzten haurren arreta integraturako proiektuaren lehen fasean familietan eta profesionaletan hautemandako beharrei erantzunez, berariazko prozesuak berrikusi dira, osasunaren, gizarte-zerbitzuen eta hezkuntzaren arloko prozedurak eguneratzeko Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta azpiprozesu bakoitzeko dokumentuak amaitu dira (entzuteko desgaitasuna, Down-en sindromea, autismoa, gaixotasun arraroak).

L3.1.- Euskara ardatz duen hezkuntza-sistema eleaniztun baten esparruan, bermatzea ikasleek konpetentzia izango dutela bi hizkuntza ofizialak modu egoki eta eraginkorrean erabiltzeko, eta atzerriko hizkuntza bat nahiko ongi hitz egiteko, ikasle guztien garapen pertsonal, sozial, akademiko eta profesionala sustatzeko bizitza osoko ikaskuntzaren esparruan, gizarte-kohesioa bultzatze aldera.

2015-2016	*2017-2018*
Ikastetxeek ikasleen euskarako, gaztelaniako eta ingeleseko konpetentzien emaitzak aztertu zituzten 2015eko Ebaluazio Diagnostikoan, eta kontuan hartu dituzte beren hobekuntza-planetan eta hizkuntza-proiektuan; horietan, irakasleen prestakuntza-premiak jaso dituzte, hizkuntza-konpetentziaren (euskara eta ingelesa) eta hizkuntzen irakaskuntzaren alorretan.	Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasle gehienek lortu dute curriculumean ezarritako irteera profila euskarari, gaztelaniari eta ingelesari dagokienez. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 6. mailan, % 89,8k lortu du euskarazko hizkuntza-konpetentzia, % 94,08k gaztelaniazkoa eta % 90,36k ingelesekoa. DBHko 4. mailan, berriz, % 93,75ek lortu du euskarazko hizkuntza-konpetentzia, % 92,53k gaztelaniazkoa eta % 90,77k ingelesekoa Hala ere, 2017ko Ebaluazio Diagnostikoko emaitzek erakusten dute euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoak oso altuak direla maila bietan. Beraz, zenbait ekimen bideratu dira konpetentzia hori hobetzeko, bai idatziko ulermenari dagokionez, bai euskara ikasteko didaktikari eta metodologiari dagokienez. Ikasturte hasierako jarraibideetan jasota dagoen bezala, Ikastetxeek kanpo ebaluazio eta barne ebaluazioetako emaitzetan oinarrituta, ikasleen hizkuntza komunikaziorako konpetentzia hobetzeko lerroak txertatu dituzte haien Urteko Planetan. Ikasleen irakurtzeko konpetentzia hobetzeko formazioa jaso eta Irakurtze Planeko jarduerak abiarazi dituzte. Eremu eta arlo guztietako irakasleek hitzezko komunikazioan, ez hitzezkoan eta digitalean oinarrizko zehar-konpetentziaren helburuak, edukiak eta irizpideak sartzeko formazioa jaso dute eta euren urteko programazio didaktikoetan jaso behar dituzte, testuen

	idatzizko eta ahozko ulermena lehenetsita; betiere programazio didaktikoa egiteko orientabide berrietan oinarrituta. Prestakuntza Ekimen Globalean (PEG) hizkuntzen trataera integratua eta integrala sustatzeko ekimenak sustatu dira. Hizkuntzen trataera integratu eta integrala bultzatu da ikastetxeetan. Eleaniztasuna deialdian parte hartu duten ikastetxe guztiek sortu dituzten materialak hezkuntza komunitatearen esku jartzea hobetsi da Irakurgunea plataforman.

L3.2.- Euskararen erabilera sozialerako aukerak eta esparruak areagotzea gelan eta gelatik kanpo, lehentasuna emanez aisialdiri eta, nagusiki, gazteen harreman- eta komunikazio-esparruei, gazteen arteko harremanak euskaraz izan daitezen.

2015-2016	*2017-2018*
2015eko Arrue Ikerketako emaitzetan ikasleen erabilera indizeak oinarrizko lerrotzat hartu dira.	2015eko Arrue Ikerketako emaitzetan ikasleen erabilera indizeak oinarri lerrotzat hartu dira.

L3.3.- Ingeles hizkuntzaz gain beste ikasgai bat ere ingelesez emateko jardunbidea zabaltzeko plangintza lantzea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan atzerriko beste hizkuntza bat irakasteko plangintza egitea.

2015-2016	*2017-2018*
EAEko hezkuntza-sistema osoaren egoeraren diagnostikoa egin da, ingeles hizkuntzaz gain beste ikasgai batzuk ingelesez emateari eta DBHn bigarren atzerri-hizkuntza ikasteari dagokienez eta, horren arabera, 2015-2016 eta 2019-2020 ikasturteen arteko aldirako neurriak planifikatu dira.	Eleaniztasunerantz deialdiak sustatuta, bai Lehen Hezkuntzan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, atzerriko hizkuntzan arlo kurrikular bat ematea bultzatu da. • Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zenbait irakasgai ingelesez ematea bultzatu da eta lanpostuen zerrendan profil batzuk aldatu dira 2015 urtetik 2018ra arte. 2017/18 ikasturtean, DBHko 2.663 ikasle

daude matrikulatuta atzerriko 2. Hizkuntza ikasgaian, eta ikastetxe pribatuetan 10.4

Ingelesa	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19
Filosofia	2	8	14	15
Geo/Hist	12	16	25	25
Mate	4	6	12	18
Fis/Kim	2	7	8	9
Bio/Geo	6	11	17	18
Marraz.	3	9	12	13
Musika	3	5	10	11
Gorp.He.	9	14	20	22
Tekno	3	5	18	21
Ekonom	2	4	4	2
Informat	7	7	18	15
GUZTIRA	**53**	**92**	**158**	**169**

Atzerriko hizkuntza-gaitasunari eta hizkuntzen didaktikari dagokion prestakuntza eman zaie irakasleei ikastetxe publiko zein itunpekoetan. Bai Prest_Garan eskainitako ikastaroen bidez, bai Eleaniztasuneranz deialdiak emandako baliabideen bidez.

L3.4.- Eleaniztasunetik abiatuta, euskararen aldeko eta hizkuntzen bizikidetzaren aldeko jarrera sustatzea; gizartean euskararekiko ikuspegi eta pertzepzio ona zabaltzeko lan egitea, ikasleek euskararen alde egin dezaten hizkuntza-aukeraketan.

2015-2016	***2017-2018***
Hizkuntzen arteko bizikidetzari lotutako neurriak zabaldu dira ikastetxeko bizikidetza-planean. Euskararen gaineko jarrerak eta iritziak curriculumaren barruan landu dira, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, hurrenez hurran, bizikidetzaren aldeko arrazoibideetan. Ikastetxearen, guraso-elkarteen eta ikasle ohien arteko lankidetza sustatu da, euskararen aldeko atxikimendua errotzeko.	Ikastetxeko Elkarbizitza planean hizkuntza-elkarbizitzari lotutako neurriak jaso dira eta haien zabalkundea egin da. Euskararekiko jarrerak (Lehen Hezkuntzan) iritziak (Bigarren Hezkuntzan) curriculumaren barne landu dira bizikidetzarekin lotutako diskurtsoaren barne. Hizkuntzarekiko atxikimendua sendotzeko eskolaren, guraso elkarte eta ordezkarien eta ikasle ohien arteko elkarlana bultzatu da.

L3.5.- Ikastetxe bakoitzean hizkuntzen irakaskuntza eta erabilera batera jorratzeko plangintza bat eratzea, ikastetxe horrek zer egoera soziolinguistiko bizi duen oinarritzat harturik beti; alegia, hizkuntza-proiektu eleaniztuna garatzea, euskara ardatz hartuta, ikasle guztien hizkuntza-konpetentzia bermatzeko.

2015-2016	*2017-2018*
Hizkuntza Proiektua prestatzeko gida prestatu eta ikastetxe guztietara zabaldu da. Dagozkien deialdien bidez, hizkuntza-proiektu eleaniztunak EAEko ikastetxeen erdietara eta, guztira, 200 ikastetxe publikotara zabal daitezen sustatu da; proiektuok ikastetxearen egoera soziolinguistikoarekin bat egin eta euskara ardatz izan behar dute.	Ikastetxe guztiek hizkuntza proiektua garatu behar dutela agindu da Ikasturte hasierako jarraibideen ebazpenean, non hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera plangintza azaltzen den. Ikastetxeak, Eleaniztasunerantz deialdiaren bidez, hizkuntza proiektu eleaniztuna garatzen ari dira, bakoitzak bere egoera soziolinguistikoaren arabera eta euskara ardatz hartuta. Zehazki, 2017-18 ikasturtean, 117 ikastetxe publikok eta 2017 itunpekok parte hartu dute. Hizkuntza-proiektuaren baitan, eremu didaktiko eta metodologikoak hartuko du lehentasuna, eta batik bat irakurtzeko konpetentziak eta ahozko adierazpenak. Hori dela eta Irakurtze Plana diseinatu eta zabaldu da ikastetxe guztietan

L4-A.1.- STEAM konpetentziei dagokienez, kanpo-ebaluazioetan lortutako emaitzak hobetzea.

2015-2016	*2017-2018*
	PISA 2015 programan zientziarako konpetentzian izandako emaitzen arabera, ikasleen % 20 mailarik txikienean dago, % 60 tarteko mailan eta % 20 maila aurreratuan. PISA 2015 programan matematikarako konpetentzian izandako emaitzen arabera, ikasleen % 20 mailarik txikienean dago, % 54 tarteko mailan eta % 26 maila aurreratuan. Lehen Hezkuntzako 4. mailan zientziarako konpetentziari buruz 2017an egindako diagnostiko-ebaluazioak erakusten duenez, ikasleen % 23,6 hasierako mailan dago, % 55,8 tarteko mailan eta % 20,6 maila aurreratuan. DBHko 2. mailan, ikasleen % 19,3 hasierako mailan dago, % 64,2 tarteko mailan eta % 16,5 maila aurreratuan. Lehen Hezkuntzako 4. mailan matematikako konpetentziari buruz 2017an egindako diagnostiko-ebaluazioak erakusten duenez, ikasleen % 15,0 hasierako mailan dago, % 55,7 tarteko mailan eta % 29,3 maila aurreratuan. DBHko 2. mailan, ikasleen % 16 hasierako mailan dago, % 59,5 tarteko mailan eta % 24,5 maila aurreratuan.

L4-A.2.- Irakasleen prestakuntza zientifiko-teknikoa eta didaktikoa sustatzea, STEAM esparruaren hezkuntza-etapa guztietan.

2015-2016	*2017-2018*
	Irakasleak prestatzeko ikastaroak eta jarduerak egin dira, hala Berritzeguneen bidezko ikastaro eta mintegien bitartez nola Prest Gara deialdien, hezkuntzako bikaintasuna lortzeko prestakuntza-proiektuen eta STEAM berrikuntzako proiektuen bitartez.

L4-A.3.- Ikasleetan eta, bereziki, nesketan STEAM arloko (zientzia, teknologia, ingeniaritza, artea eta matematikak) bokazioak eta helburu profesionalak sustatzea.

2015-2016	*2017-2018*
	STEAM arloan trebatutako profesionalen eskaria handitzen ari da eta joera horrekin jarraituko dela espero da. Alabaina, prestakuntza zientifiko-teknologikoa aukeratzen duten ikasleen kopuruak ez du eskariaren erritmo berean egiten gora. Generoari eta steam bokazioei dagokienez, Zenbait neurri jarri dira martxan, denak ere, Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean jasotakoak. Ildo horretatik hainbat jarduera burutu dira prestakuntzaren arloan, Emakunderen EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana sustatzeko eta abar. Askotariko ekintzak egin dira STEAM irakasgaien ikaskuntzako emaitzak hobetzeko eta gazteei zuzendutako dibulgazio zientifikoa sustatzeko. Gainera, curriculuma garatzeko eta oinarrizko konpetentziak lortzeko materialak sortu eta askotariko

	webguneak sortu eta mantendu dira. Beste erakunde batzuekin elkarlanean, zenbait proiektu eta jarduera egin dira, eta ikasle askok parte hartu dute haietan: Zientzia azoka, Kristalizazioa ikasgelan, First Lego League Euskadi, Olinpiada matematikoa, zientzia astea, Golab eta Nextlab proiektuak, Training caravan, BTEKera bisitaldiak, etab. Era berean, zientziaren dibulgaziorako jarduerak egin dira ikasle eta herritarrentzat, esaterako, bisitaldiak eta prestakuntzako mintegiak BTEKera, Naukas programa, Zientzia Klip lehiaketa, Ciencia en Acción, Bizitza Zientifikoen Jardunaldia eta Zientziarekin Solasean Jardunaldiak.

L4-A.4. -Dibulgazioa eta kultura zientifikoa eta teknologikoa sustatzea hezkuntza-komunitate osoan eta EAEko herritarren artean, hezkuntza arautua eta ez-arautua hurbilduz.

2015-2016	*2017-2018*
	Hezkuntza Sailak bere babesa eta laguntza eman du zenbait erakundek gauzatutako dibulgazio zientifikoko askotariko jardueretan (unibertsitatea, BC3, Eureka Zientzia Museoa, etab.). STEAM Euskadi estrategia berria aurkeztu da.

L4-B.1.- Ikasmaterialaren eta hezkuntza-edukien prestaketa eta hedapena sustatzea (hezkuntza-baliabide irekiak, eduki digitalak eta inprimatuak...); edukiok bat etorri beharko dute hezkuntza Heziberri 2020 Planean jasotako proposamen didaktiko eta metodologikoarekin, ikasle guztien konpetentziak garatzen eta irakaskuntzako metodologia berritzen laguntzeko.

2015-2016	*2017-2018*
Irakasle guztien prestakuntzaren bidez, curriculum-material inprimatuak eta digitalak aztertzeko eta prestatzeko gida prestatu eta zabaldu da. Sarean (Heziberri 2020 Planaren, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren eta Berritzeguneren webguneetan) arlo edo irakasgai bakoitzeko unitate didaktikoen adibideak argitaratu dira eta irakasle guztiei zabaldu zaie. Material didaktikoak lortzeko ebazpena argitaratu da, eta ikastetxe publikoek material didaktikoa errazago lor dezaten lagunduko du. EIMA eta R-400 programen dirulaguntzen aginduak berrikusi eta egokitu dira, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren arabera eta Hezkuntza Baliabide Irekiak prestatzea sustatzeko. Martxan jarri da Sare_Hezkuntza programa, zeinak askotariko material digitalak izango dituen, eta bereziki azpimarratuko dira euskarazko materialak, gero ikastetxeetan erabil daitezen.	Berritzegune nagusiak, beste Berritzegune batzuen laguntzarekin, prestakuntzako moduluak egin ditu hizkuntzako, matematiketako, zientziako eta komunikazioko konpetentzien, konpetentzia digitalen eta metodologiaren eta ebaluazioaren arloan, Prestakuntza Ekimen Globalera bideratuta. Ikastetxeek ikasmaterial digitalak sortzeari eta erabiltzeari dagokionez, nabarmendu behar da Sare_hezkuntza Gelan sareko ikastetxe berritzaileek komunitatearen hezkuntza digitalean eman duten aurrerapausoa; izan ere, 2017. eta 2018. urteetan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako beste 112 ikastetxe batu dira. Euskarazko ikasmaterial digitalak prestatzeko EIMA 2.0 programak dirulaguntza eman du (540.000 €), 27 ikasmaterial sortzeko 2015, 2016 eta 2017ko deialdietan; ikasmaterial horietatik 16 Hezkuntza Baliabide Irekiak dira. Era berean, euskarazko ikasmaterialak sortzea sustatzeko IRALE R-400 programaren bidez, 205 material sortu dira (2015etik 2018ra); horietatik 44 baliabide digitalak dira (aplikazioak, multimedia, webguneak...) eta EIMAren katalogoan daude. Ekimen horien bidez sortzen ari diren euskarazko Hezkuntza Baliabide Ireki guztiak biltzeko eta hezkuntza-komunitatearen eskura jartzeko, plataforma semantiko bat diseinatu da, EAEko ikasleen curriculum-garapenari

	laguntzeko ikasmaterialak sailkatu eta errazteko.

L4-B.2.- Ikastetxeen eraldaketa teknologiko eta pedagogikoa sustatzea, hezkuntza-proiektuak hobetzeko, Sare_Hezkuntza Gelan proiektuen bitartez.

2015-2016	*2017-2018*
Sare_Hezkuntza Gelan proiektuetarako dirulaguntzen Agindua eta Ebazpena argitaratu dira, 120 ikastetxe gehiagorentzat (horietatik 70 ikastetxe publikoak izango dira), bi ikasturteko iraupenaz. Sare_Hezkuntza Gelan ikastetxeetan 2015-2016 ikasturtean eskolako materialaren modalitatearen beka jaso duten ikasleek gailu digitalak eskuratzeko dirulaguntzen Agindua argitaratu da. Hezkuntza arloko Sail eskudunak ikastetxeen premiak aztertu ditu, IKTen maila aurreratua lor dezaten. Irakasle guztiei konpetentzia digitaletako (DIGCOM) prestakuntza eman zaie, ikastetxeek aurrera egin dezaten IKTen heldutasuneko ereduaren mailan: ikastetxeen % 90ek IKTen oinarrizko heldutasun-maila lortu du. Sare_Hezkuntza Gelan proiektu bakoitzaren diseinua balioesteko eta prozesuaren jarraipena egiteko txostenak egin dira. Halaber, Sare_Hezkuntza Gelan ikastetxeen koordinaziorako aurreikusitako 4 berariazko bilerak egin dira. Ikastetxe publikoen konektibitatea eta barne-arkitektura hobetu dira.	2017ko eta 2018ko Sare_hezkuntza Gelan deialdietan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 112 ikastetxe batu dira; hala, guztira 258 ikastetxe publiko dira orain (% 47). Ikastetxe berritzaile horietan, ikasle bekadunek gailu digital berriak lortzeko 1.255.600 €-ko dirulaguntza eman da, 169 ikastetxeri (63 publikoak eta 106 itunpekoak) eta 7.206 eskabideri (sare publikoko 2.395 ikasle eta itunpeko sareko 4.811 ikasle) erantzunez. Bestalde, prestakuntzako moduluak diseinatu dira konpetentzia digitaletarako, Prestakuntzako Ekimen Globalaren barruan, ikasleen eta irakasleen konpetentzien garapena sustatzeko. Hala, EAEko ikastetxe publikoetan emateari ekin zaio, hain zuzen ere, ikastetxeen % 60an. Ikastetxeen IKT heldutasuneko ereduaren ikuskaritzan, 73 ikastetxe publiko aurkeztu dira (2017-2018 ikasturtea) eta ziurtatze-maila hauek lortu dituzte: 15 ikastetxek oinarrizko maila, 43k tarteko maila eta 15ek maila aurreratua. Oro har, ikastetxe publikoen % 93k dagoeneko lortu du heldutasun teknologikoko mailaren bat: % 29k oinarrizkoa, % 51ek tartekoa eta % 13k aurreratua. Bestalde, Sare_hezkuntza programako ikastetxeetako IKTen irakasle dinamizatzailearen konpetentzia-profila gehitu da.

	EAEko ikastetxe publiko guztietan *100mb-eko zuntzezko konexioa daukate.* *Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, wifi-sarea berritu da* eta barneko eta kanpoko konektibitate ona dute. Ekipamenduari dagokionez, EAEko ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasgela guztietan arbel digitalak jarri dira. Irakasleen eskura *jarri* da 0ffice 365 Education plataforma, lankidetzarako tresnak eta aplikazioak izan ditzaten.

L4-B.3.- EAEko hezkuntzako eta gizarteko eragile guztien arteko lankidetza sustatzea, sarean ikasteko Sare_Hezkuntza komunitate birtuala osatzeko, ezagutza sortu eta zabaltze aldera.

2015-2016	***2017-2018***
Gizarte- eta hezkuntza-eragileen laguntza izatea, Sare_Hezkuntza ataria elikatzeko. Sare_Hezkuntza proiektuen etorkizuneko deialdietan parte hartu nahi duten ikastetxeei aukera ematea indarreko Sare_Hezkuntza proiektuak ezagutzeko eta horiekin harremana izateko.	Eskolen arteko eTwinning proiektuetako partaidetza handitzen ari da, irakasle ordezkarien sustapenari eta ikasturtean egindako jardunaldiei esker. Plataforma semantiko bat eta jarduteko komunitateen sare sozial bat diseinatu dira EAEko irakasleentzat: ikasgunea eta, horren barnean, Irakurgunea eta Bizikasigunea.

L5.1.- Ikastetxeetako irakasleekin lankidetzan aritzea, oinarrizko konpetentzia guztien barneko eta kanpoko ebaluazioa egin dezaten, hala zeharkakoena nola diziplina barrukoena, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat etorriz.

2015-2016	*2017-2018*
Berritzeguneek gida bat diseinatu dute eredu pedagogikoaren hezkuntza-esparru berrian unitate didaktikoak prestatzeko eta ebaluatzeko eta, horretan, konpetentzien arabera lan egitea eta ebaluatzea proposatzen da. Berritzeguneek egoera deskribatzeko eredua eta integrazio-egoeren proposamenak egin dituzte, arlo eta etapa bakoitzerako. Ikuskaritzak programazio didaktikoaren gida egokitu eta bidali du, eta programazio-ereduak berriz prestatu ditu, hainbat arlo, irakasgai eta etaparako. Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen arteko koordinazioa eta informazio-trukea hobetu dira, bai eta ikastetxeekin duten elkarlana ere. Ikasturte eta etapa bakoitzaren amaierako ebaluazioaren akta-eredua aldatu da, kontuan hartuta ikasleek beren irteera-profilari dagokionez hartutako konpetentziekin lotutako prestakuntzako eta ziurtapeneko alderdiak.	Hezkuntza Sailburuordetzaren ikasturte hasierako ebazpenek adierazten dutenez, kanpoko eta barneko ebaluazioen emaitzak alderatu behar dira eta, azterketa horretatik abiatuta, hobetzeko proposamenak eta irakasleak prestatzeko prozesuak sortu behar dira. Ikastetxeei prestakuntza emateko saioak egin dira eta «arazo-egoera» deskribatzen duen eredua eta arlo, irakasgai eta etapa bakoitzerako arazo-egoeren proposamenak zabaldu dira Hezkuntza webgunearen bidez. Zeharkako konpetentzien eta diziplina barrukoen garapenari buruzko orientabide didaktiko eta metodologikoak eta ebaluazioaren ingurukoak garatu dira. Irakasleek prestakuntza emateko moduluak prestatu dira, hausnarketa partekatua izaten eta ikastetxeetan oinarrizko konpetentziak gara daitezen laguntzeko. (Esparru orokorra, irakurtzeko konpetentzia, matematikarako konpetentzia). Baliabide sorta bat garatu da (irakasleentzako ikasmateriala eta hausnarketarako materiala), oinarrizko konpetentzien garapenarekin lotua. Ikasturte eta etapa bakoitzaren amaierako ebaluazioaren akta-eredua aldatu da, kontuan hartuta ikasleek beren irteera-profilari dagokionez hartutako konpetentziekin lotutako prestakuntzako eta ziurtapeneko alderdiak.

L5.2.- Ikastetxeekin batera, etapa bakoitzaren erdian, prestakuntzako diagnostiko-ebaluazioak planifikatu eta antolatzea, barne-hausnarketa pizteko eta etengabeko hobekuntzako prozesuei laguntzeko, ikastetxe bakoitzeko hobekuntza-planak eguneratuz eta beharrezkoak diren indartze-neurriak hartuz.

2015-2016	***2017-2018***
Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak), ikastetxeekin elkarlanean, Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.). ISEI-IVEI erakundeak, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoen eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailakoen 2014-2015 ikasturteko diagnostiko-ebaluazioari dagozkion txostenak bidali dizkie ikastetxeei. Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) 2016-2017ko Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.). Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) 2016-2017ko DBHko 2. mailako ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.).	Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak), ikastetxeekin elkarlanean, Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne-ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.). ISEI-IVEI erakundeak, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoen eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailakoen 2016-2017 ikasturteko diagnostiko-ebaluazioari dagozkion txostenak bidali dizkie ikastetxeei. Saileko zerbitzuek (ISEI-IVEI eta Berritzeguneak) Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ebaluazioa diseinatu dute (esparrua, irizpideak, probak, estimuluak, familien txostena, etab.) 2017ko diagnostiko-ebaluazioei dagokienez. Ikastetxeek oinarrizko konpetentzien diagnostiko-ebaluazioak egin dituzte Lehen eta Bigarren Hezkuntzako etapen erdian, Saileko zerbitzuek emandako irizpide eta ereduen arabera.

L5.3.- Etapa amaierako kanpoko ebaluazio diagnostikoa egitea, egiaztatzeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleek zer neurritan eskuratu dituzten irteera-profilean aurreikusitako oinarrizko konpetentziak, informazioa eta datu objektiboak emango dituen ebaluazio-sistema zorrotz, fidagarri eta jarraitua izateko, EAEko hezkuntza-sistema hobetzen lagunduko duten erabakiak hartze aldera.

2015-2016	*2017-2018*
ISEI-IVEI erakundeak, ikuskaritzak eta Berritzeguneek esparru teorikoa, estimuluak, ebaluazio-itemak eta -koadernoak, zuzenketa-irizpideak eta txosten-ereduak diseinatu dituzte, Lehen Hezkuntzako 6. mailarako, ikasleen irteera-profilaren arabera. ISEI-IVEI erakundeak, ikuskaritzak eta Berritzeguneek esparru teorikoa diseinatu dute, DBHko 4. mailarako, ikasleen irteera-profilaren arabera.	ISEI-IVEI erakundeak, ikuskaritzak eta Berritzeguneek esparru teorikoa, estimuluak, ebaluazio-itemak eta -koadernoak, zuzenketa-irizpideak eta txosten-ereduak diseinatu dituzte, Lehen Hezkuntzako 6. mailarako eta DBHko 4. mailarako, 236/2015 Dekretuan ezarritako ikasleen irteera-profilaren arabera. Sailak kanpoko diagnostiko-ebaluazioak egin ditu Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 4. mailan, ikastetxeen lagin batean, hizkuntza-ereduaren eta titulartasunaren arabera geruzatuta, jakiteko Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 4. mailako ikasleek zer neurritan lortu dituzten irteera-profilaren arabera dagozkien konpetentziak eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzen lagunduko duten erabakiak hartzeko.

L5.4.- Nazioarteko ebaluazioetan parte hartzea, EAEko hezkuntza-sistemarekin behar bezala egokituta, datu alderagarriak izateko ikasleen emaitzei buruz eta, hala, beharrezkoak diren hobekuntza-planak egin eta indartze-neurriak hartzeko.

2015-2016	*2017-2018*
ISEI-IVEI erakundeak emaitzen txostenak bidali dizkie 2013ko PISA for schools probaren saio pilotuan parte hartu duten 32 ikastetxeei. 50 ikastetxeko laginarekin parte hartu da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen irakurtzeko konpetentziari buruzko nazioarteko PIRLS 2016 ebaluazioan.	ISEI-IVEI erakundeak emaitzen txostenak bidali dizkie 2015eko PISA for schools probaren saio pilotuan parte hartu duten ikastetxe guztiei. EAEk beste herrialde eta erkidego batzuekin alderatzeko datuak ditu, 15 urteko ikasleen zientziarako, irakurtzeko eta matematikarako konpetentzien

Nazioarteko ebaluazioetan lagin zabalago batekin parte hartzearen bideragarritasuna aztertu da, hala Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Antolakundeari (TALIS 2018, PIACC 2018) nola International Association for the Evaluation of Educational Achievement elkarteari (TIMSS 2019, PIRLS 2021) dagokienez.	ebaluazioari buruz. 50 ikastetxeko laginarekin parte hartu da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen irakurtzeko konpetentziari buruzko nazioarteko PIRLS 2016 ebaluazioan.

L5.5.- Irakasleen konpetentzien mapa zehaztea, dauden ikerketetatik eta curriculumaren garapenari buruzko Dekretuan ezarritako irteera-profiletik abiatuta, eredua izan dadin irakasleak ebaluatzeko prozesuetan.

2015-2016	***2017-2018***
Irakasleen profila zehaztu da (konpetentziak, dimentsioak eta irizpideak) eta behaketarako eta ebidentziak jasotzeko zerrendak prestatu dira. Irakasleen konpetentzia-profila irakasleen artean zabaldu da eta etorkizuneko irakasleei prestakuntza ematen dieten ikastetxe guztietara bidali da.	Irakasleen profila zehaztu da (konpetentziak, dimentsioak eta irizpideak) eta behaketarako eta ebidentziak jasotzeko zerrendak prestatu dira. Irakasleen konpetentzien profila irakasleei banatu zaie EAEko hezkuntza-sisteman sartzen diren irakasleentzako gidaren bidez, eta ikastetxe guztien eskura jarri da Sailaren web-orriaren biez; halaber, praktiketan dauden irakasleak dituzten ikastetxeei eman zaie.

L5.6.- Irakasleen ibilbide profesionala finkatzea, erreferentziatzat hartuta irakasleen konpetentzia-mapa, irakasleei hobetzen laguntzeko.

2015-2016	*2017-2018*
Lantalde iraunkorra sortu da Hezkuntza Sailburuordetzaren eta Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren artean, irakasleen ibilbide profesionala ezartzeko arau-proposamena prestatze aldera, ikasleek irteera-profilean zehaztutako konpetentziak lortzeko behar duten konpetentzia-profilaren arabera.	Irakasleen profila diseinatu da, erreferentziatzat hartuta ikasleen irteera-profila bermatzeko beharrezko konpetentzia profesionalak. Aldaketak egin dira irakasleen EPEren deialdian, ikasgelako irakaskuntzako jardunbidearen alderdi espezifikoak proposatzen diren kasu praktikoari dagokionez. Halaber, curriculumari buruzko indarreko dekretuetan sustatutako irakasle-profilari egokitutako ebaluazio-irizpideak txertatu dira. Bestalde, irakasleek beren jardunbidea ezarritako konpetentzia-profilaren arabera ebaluatzeko erabil dezaketen tresna bat argitaratu da Sailaren web-orrian.

L5.7.- Hezkuntza-sistema ebaluatzea datu objektiboak (konparatiboak) izateko eta ikerketak egitea, erabakiak hartzeko eta sistema hobetzeko.

2015-2016	*2017-2018*
Hobekuntza Plan honetan jasotako ildo estrategikoekin eta hezkuntza-sistemaren helburuekin zuzenean lotutako ikerketa-gaien ondoriorik garrantzitsuenak diseinatu eta berrikusi dira. Emaitza baxuak eta balio erantsi txikiagoa duten ikastetxeak sakonago ikertu eta ebaluatu dira, horiek aldatzea baita lehentasuna, emaitzetan aurrera egin nahi bada. Ikasleen ebaluazioaren eremuak zabaldu dira, pixkanaka oinarrizko konpetentzia guztietara hedatuz. Laguntza-zerbitzuko, Ikuskaritzako eta ISEI-IVEI erakundeko eta horren zerbitzu-katalogoko lanpostuen konpetentzia-profila definitzen hasi da. Ikastetxeetan espazioaren diseinu arkitektonikoari, altzarien ezaugarriei eta denboraren kudeaketari buruzko ikerketa bat egiteko oinarriak jarri dira, konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren aldaketa metodologikoarekin bat etorriz. Ikuskaritzak irakasleen eta zuzendaritza-taldeen ebaluazioa gauzatzeko Europako proiektuan parte hartu du.	5. Hezkuntza-sistema hobetzeko 2016ko Planaren jarraipena egin da, aurkeztu zenetik bi ikasturte geroago, kontuan hartuta proposatutako helburu eta adierazleak eta egindako ebaluazioen eta Hezkuntza Sailean argitaratutako erregistro ofizialen bidez lortutako datu objektiboak. 6. Emaitza baxuak eta balio erantsi txikiagoa duten ikastetxeak sakonago ikertu eta ebaluatu dira, horiek aldatzea baita lehentasuna, emaitzetan aurrera egin nahi bada. 7. Ikasleen ebaluazioaren eremuak zabaldu dira, pixkanaka oinarrizko konpetentzia guztietara hedatuz. 8. Ikuskaritzak irakasleen eta zuzendaritza-taldeen ebaluazioa gauzatzeko Europako proiektuan parte hartu du.

L6.1.- Proiektua sortu, ezarri eta ebaluatzea, ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko, haien helburuak, edukiak, betekizunak eta hautaketa- eta ebaluazio-prozedurak zehaztuz, ikastetxeei aukera emateko beren berrikuntza-proiektuak eraginkortasunez prestatu eta garatu ditzaten.

2015-2016	*2017-2018*
Ikastetxe publikoen autonomian sakontzeko proiektua diseinatu da, dagokion deialdia egiteko 2016-2017 ikasturtean, eta 2017-2018 ikasturtean ezartzeko.	Ikastetxeek autonomian sakontzeko proiektuetan duten parte-hartzea handitu da: Hauspoa (62 ikastetxe), Hamaika Esku (63 ikastetxe). Lau urterako, zuzendaritza-proiektua duten zuzendarien % 62 hautatu da.

L6.2.- Beharrezkoak diren bitartekoak ezartzea, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeak aukera izan dezan autonomiaz, elkarrekin eta modu eraginkorrean zuzentzeko, garapenarekin eta bere ikastetxearen hezkuntza-proiektua hobetzearekin lotutako erabakiak hartzean, planifikatzean eta kudeatzean.

2015-2016	*2017-2018*
Hezkuntzako Zuzendaritzen izendapena arautzen duen Dekretua egokitzeko azterketa bat egin da, ikastetxeen autonomia garatzeko beharrezkoa den lidergoa sustatuko duten irizpideak sartze aldera. Ikastetxeetako zuzendaritzen hasierako prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko plan berri bat egin da, unibertsitateekin elkarlanean, zuzendaritza-taldeen egonkortasuna eta profesionaltasuna sustatzeko beharrezkoa den kalitatezko prestakuntza emateko.	Zuzendariak hautatzeko Dekretuaren aldaketan, zenbait aldakuntza txertatu dira, ikastetxeen autonomiaren garapen-ildoen proposamenak ebaluatzeko. Ikastetxeetako zuzendaritzek zuzendaritza berriak hautatzeko prozesuan esku hartu dute, hautaketako batzordeetan parte hartuta. Kalitatea Hezkuntzan sareko ikastetxeen partaidetzarekin, ikastetxeentzako autoebaluazio-eredu bat diseinatu da. Sareko 21 ikastetxek egin dute eredua ezartzeko tresnen proba pilotua. Hamaika Esku programako ikastetxeetan, zuzendaritzek esku hartu dute haien hezkuntza-proiektuak sustatzen lagunduko duten pertsonak hautatzen eta ebaluatzen.